ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2009ko apirilaren 20a > Astelehena > VII. urtea > 229. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Geldiezina izango da ezker abertzale berriaren indarra, ETA desagertzean"



**Oxel Erostarbe**
Legegiltzarreko kidea > 09

**G2a** **Kantari: ikuskizunak hastera doaz!**> 29

**GARAIA**
**Self-service jatetxea zabalduko du uztailean Gureak Taldeak** > 06

**GIMNASIA**
**Arrasate Dragoi taldeko neskak, Espainiako txapelketara** > 15

**SASKIBALOIA**
**Hurrengo hiru partiduak irabazi behar ditu MUk mailari eusteko**> 23

**ONDAREA** > ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA

# Arantzazuko lana ezagutzera emateko kanpaina, abiarazita

**URTEBETE** Arantzazu Gaur Fundazioa orain dela urtebete sortu zuten, eta orain arteko balorazioa egin dute

**PARTAIDEAK** Fundazioa Aldundiak, Oñatiko Udalak, Mondragon Taldeak, Kutxak eta frantziskotarrek osatzen dute

**BI GIDA** Ekainera bitartean, bi gida argitaratuko dituzte: Arantzazuren ikuspegien gainekoa eta bidezidorrena > 05

**MENDIA** > MAKALU´09

## Baruntsera igoera, hastear

Iñurrategi, Zabaltza eta Vallejo gailurrera igotzen saiatuko dira egunotan > 23

## Intxortan Gerra Zibilaren gaineko ibilbide tematikoa egiteko lanean dabiltza

Etzi, eguaztena, *Gerra Zibila Euskal Herrian: Ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* proiektua aurkeztuko dute Espaloia Kafe Antzokian, 19:30ean.

Intxorta 1937 Kultura Taldearen eta Elgetako Udalaren proiektua da, eta informazio panelez eta gerra denboratik berreskuratutako materialekin osatutako ibilbidea egin gura dute.

Atzo, domeka, ibilbidea bisitatu zuten eta astean ekitaldiak izango dituzte. > 20



**IBILBIDEA AZTERTZEN** Atzo, domeka, hainbat debagoiendarrek Intxortako inguruak bisitatu eta proiektuaren berri izan zuten. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**TURISMOA** > ASTE SANTUA

## Bisitari gutxiago izan dira

Turismo bulego gehienetan aurreko urteetan baino turista gutxiago izan dituzte. > 02

**ITURBIDE** > GREBA

## Etzi bilera egingo dute Udalarekin

Iturbide egoitzan dabiltzan Untzako langileek greba eten zuten Aste Santu hasieran > 14

**ZERGAK** > AITORPENA

## Bihar hasiko da errenta kanpaina

Bihar, martitzena, hasiko du Errenta eta Ondarearen kanpaina Aldundiko Ogasun departamenduak. Ekainaren 25a bitartean izango dute herritarrek 2008ko errentaren kontuak argitzeko epea. > 06




**Pendrive-a opari. Nahi?**

Zoaz 7. orrialdera

**TURISMOA** > ASTE SANTUA IBARREAN

# Kanpokoak bai, baina euskal herritarrak gehiago gurean Aste Santuan

**GUTXIAGO** Turismo bulego gehienetan aurreko urteetan baino bisitari gutxiago ibili dela esan digute

**BISITATUENAK** Arrikrutzen gora egin du turista kopuruak, %34; Gatz Museoa izan da beste txoko bisitatuetako bat

**HOTELAK** Debagoieneko landetxe gehienak beteta egon dira; hoteletan, ordea, apenas izan dute turistarik



Oñatiko Unibertsitatea da ibarreko ondare bisitatue

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Aste Santua batera eta bestera bidaiatzeko aprobetxatzen du jendeak. Aurten, gurera, badirudi aurreko urteetan baino turista gutxiago etorri dela. Hala adierazi digute ibarreko turismo bulego gehienetako arduradunek. Kanpotik etorritako bisitarien kopuruak behera egin duela jakinarazi dute Gatzagako, Oñatiko eta Arantzazuko turismo bulegoetako arduradunek. Turistarik ez da falta izan, baina beste urte batzuetan baino gutxiago izan dira. Katalunia eta Madrildik etorritako bisitariak egon dira gurean baina gehienak euskal herritarrak izan dira.

Oñatira etorritako bisitarien kopurua, adibidez, txikiagoa izan da. Aurten iazko Aste Santuan baino 19 turista gutxiagok hartu dute parte bisita gidatuetan. Arantzazuk ere beherakada handia igarri du. Eguen Santutik aurrera bisita gidatu gutxi egin ziren Arantzazun eta domekako bisita gidatuak bertan behera utzi zituzten jenderik ez zegoelako. Hala ere, jendea ibili da eta astelehenean jai eguna izanik eta eguraldi ona lagun, jende mordoa joan zen Arantzazura eta Urbiara. Pazko Astean ere Oñati inguruan turistak ibili ziren herriko txoko esanguratsuak ikusiz bisita gidatua egiten.

> **Katalunia eta Madrildik etorri dira bisitariakgurera, baina gehienak Euskal Herritik**
>
> **Turistek egonaldiak Debagoieneko landetxeetan egin arren, batera eta bestera ibili dira**

**IAZ BAINO GEHIAGO BERGARAN**

Bergaran, ordea, aurtengo Aste Santua 2008koa baino hobea izan dela esan digute turismo bulegoan. Jatorriari erreparatuta ez dago oso urrutira joan beharrik, gehienak EAEkoak izan dira-eta, 208; baina Kataluniatik (46) eta Espainiako beste txoko batzuetatik (80) ere etorri da bisitaririk. 13 bisita gidatu egin dituzte eta Aste Santuan jende gehien ibili den eguna Zapatu Santua izan da: apirilaren 11n 40 bisitari pasa ziren bulegotik.

Arrikrutz izan da txokorik bisitatuenetakoa ibarrean eta pozik daude arduradunak, iaz baino bisitari gehiago joan direlako, guztira ia 1.200 turista. Bisita ordu bereziak ere antolatu dituzte jendeari kobazuloak erakusteko. Euriaz kexu da jende asko, baina euria egiteak mesede egin dio kobari, erreka bistaratu egin delako egubakoitzetik domekara bitartean.

Gatzagako Gatz Museoan ere ez da jenderik falta izan: "Beste urte batzuekin alderatuta bisita kopuruak pixka bat handitu dira, baina ez dago mugimendu handirik. Ez dakit errua aurten autopistak duen, edo krisiak edo propaganda faltak, baina mugimendu askorik ez da egon. Hala ere, bisita guztietan egon da jendea. Gehiena Euskal Herrikoa izan da baina Terueleko jendea egon da, Madrilgoa, katalanak...", esan digu Gatz Museoko gidari Aitziber Gorosabelek.

**LANDETXEAK BETETA**

Gehien Euskal Herriko jendea ibili da gurean batetik bestera, baina urrutiagotik ere etorri dira turistak; Madrildik eta Kataluniatik gehienak. Horietako batzuek egonaldia ere Debagoienean egin dute eta landetxeak aukeratu dituzte lotarako. Debagoieneko landetxe gehienak beteta egon dira; hotelak, ostera, ia hutsik. Gatzagako Gaztainuzketako zazpi mendi etxeak beteta egon dira, Aretxabaletako Mitarte Garain Nafarroatik etorritako talde handia izan dute. Bergara-



**Remedios Navarro Dominguez** > Katalunia

Apirilaren 11n, zapatuan, Oñatin izan zen Kataluniako 28 laguneko talde bat, besteak beste, Unibertsitatea eta parrokia ezagutzen. Bisitari talde horretako Remedios Navarrori adibidez, oso polita iruditu zitzaion Oñatin ikusitakoa: "Oso polita da, benetan gustatu zait. Orain dela 20 urte ere izana nintzen hemen, eta esan dezaket, asko aldatu dela, eta onerako gainera. Unibertsitatea eta parrokia ikusi ditugu eta benetan ikusgarriak iruditu zaizkigu. Bergaran eta Arrasaten ere izan gara eta gustatu zaigu bailara".



**Sabino De Bilbao** > Larrabetzu

Mendizalea da Sabino De Bilbao eta aspaldidik ezagutzen du Debagoiena. Domekan, apirilaren 12an, Gatzagako Gatz Museoa bisitatu ostean gustatu zitzaiola esan zigun: "Normalean Aste Santuan Pirinio aldera egiten dugu buelta, baina aurten, arazo batzuk tarteko, hemen gelditzea erabaki dugu. Euskal Herriko txokoak bisitatzen jardun dugu egunotan. Modu polita da opor egunak igarotzeko eta museoa gustatu zaigu". Museoa eta inguruak bisitatzeaz gain, bazkaldu ere gurean egin zuten: "Gure Ametsa jatetxean gelditu gara bazkaltzen", esan zuen.



**Lorenzo Martin** > Salamanca

Antolatutako bidaia batean etorri da Lorenzo Martin Euskal Herrira eta beste hainbat herri eta hiriren artean Oñati bisitatu zuen eguenean, apirilaren 16an. Bisita gidatuan eten txiki bat egin eta zera esan zigun: "Oso herri polita da, ederra. Gainera antzinako itxura du, ez guk ostatu hartu dugun herrian, Eibarren, moduan, han etxebizitza bloke handiak daude. Unibertsitatea gustatu zait eta gidariaren azalpenekin ere gustura ikusi dugu dena. Arantzazura ere joango gara. Bidaia oro har interesgarria da, baina niri batik bat paisaia eta jatekoa gustatzen zaizkit Euskal Herrian".



netako bat. GOIENKARIA

ko Anduri landetxea ere beteta egon da; Elgetako Eguzkitza landetxean kataluniarrak eta madrildarrak izan dituzte, baita Antzuolako Ibarren ere. 20 lagun izan dituzte Antzuolan eta eguraldi txarrari aurpegi ona ipinita gustura izan dira. Ibarreko Pilar Belastegik esan digunez, "eurei paraje hau eguraldi txarrarekin ere asko gustatzen zaiela diote eta oso ondo pasatu dute. Gaua Antzuolan pasa arren egunean barrena Bilbora, Gasteizera, Donostiara, eta Errioxara joan dira. Krisirik momentuan ez dugu sumatu. Gainera, udazkenetik hasiak ziren etxe guztia eskatzen, baina guk iaztik erreserba geneukan eta gelak alokatu ditugu".

Hotelak, ordea, ia hutsik egon dira egunotan. Gatzagako Soran etxean %10 baino ez da bete, hala ere jatetxean izan da mugimendurik. Bergarako Ormazabal hotelean hobeto joan dira egunok, baina erdia ere ez dela bete onartu dute. "Krisiak izango du zerikusirik, baina Aste Santuan bestela ere jendea Zarautzera edo Donostiara joaten da. Hona noizean behin etortzen da jendea kale eta etxeak ikustera, baina aurten askorik ez. Etorri dira batzuk Eibarrera plater tirora joateko eta Andorrakoak eta kataluniarrak ere bai", dio.

Krisia, euria, kostaldeko xarma falta... aitzakiak asko izan daitezke eta turistak gutxi. Behintzat beste urte batzuetan baino gutxiago. Hala ere, Euskal Herritik bertatik zein beste toki batzuetatik Debagoienera etorritakoek gureko paisaia, jateko, santutegi, monumentu eta beste hainbat konturekin gozatu dute nahi beste.

GASTRONOMIA JARDUNALDIAK

## Eskainiz gero, jendea menu berezien bezero

Mankomunitateak ibarreko ostalariekin elkarlanean abian ipinitako Debagoieneko Gastronomia Jardunaldiek erantzun ona izan dute. Eskualdeko odoloste, gazta eta pellak ipini dituzte aukeran menu berezietan eta jendea jatetxeetara horien eske gerturatu den galdetu dugu.

Bergarako Lasa jatetxea itxita izan da Aste Santuan, baina abian ipini zirenetik eurenean jardunaldiek erantzuna polita izan dutela esan digu Koldo Lasak: "Jendeak Debagoiena menua eskatzen du. Kanpoan kartela ipinita daukagu, baina badira aurrez egitasmoaren berri izan eta enkargua eginez deitzen dutenak ere". Aurrerantzean ere antzerako jarduerak egiteko asmoa dutela azaldu digu: "Uztailean eta irailean edo urrian perretxikuekin edo sasoiko beste produktu batzuekin menuren batzuk-edo gertatzekoak gara".

**KANPOTARRAK JAKITUN**

Arrasateko Santa Ana jatetxean Iñaki Pildainek esan digu motel antzean joan dela egitasmoa. "Jendeari menu berezi horiek eskaini eta gastronomia jardunaldien berri eman diogunean izan da probatu duenik eta gustatu zaienik. Baina aurrez jardunaldien berri izan eta menu horiek eskatzera inor gutxi etorri da".

Hilarion jatetxean, Arrasaten, Aste Santuan oso jende gutxi ibili da. "Aste Santu bezperan izan zen kanpotarrik menu berezia eskatu zuenik; hortaz, ibarretik kanpo ere zabaldu da egitasmoaren berri. Beste batzuei menua eskaini diegu eta hartu dute, baina Aste Santuan ez, hortaz zaila da turistek aukera horri eutsi dioten jakitea", esan digu Gladis Hernandezek.

**BISITARIAK ERAKARRI**

Gastronomia jardunaldien gainean jatetxeetako ordezkariei ez ezik ordezkari politikoei ere galdetu diegu. Iñaki Galdos Kanpo Harremanetarako diputatuaren esanetan, "ekimen interesgarria da. Ikusi dut hainbat jatetxek egin dutela bat eta esan didate nahiko arrakasta polita izaten diharduela. Donostia inguruan eta turismo arloan gabiltzan debagoiendarrok esaten dugu pekatua dela Donostia ingurukoendako hain ezezagunak diren hainbat txoko egotea".

"Donostiara jendea etortzen da, baina Donostia Gipuzkoarik gabe txiki geratzen da. Jendeak galdetzen digu: Donostiara noa, , baina zer egin dezaket, ze Donostia azkar amaitzen da. Hortaz, horrelako jardunaldiak egonik errazago erakar daiteke jendea", dio Agustin Arostegi Diputazioko Turismo zuzendariak.



Kanpo Harremanetarako diputatu Iñaki Galdos Gatz Museoan. TXOMIN MADINA



**Maria Angeles Ruan** > Salamanca

Euskal Herria ezagutzen zuen Salamancatik etorri zen turista honek eta Arantzazun ere izana zen aurrez. Oñatin, ordea, ez zen egon eta asko harritu zuen bisitak: "Horrelako unibertsitatearekin topo egiterik ez nuen espero eta oso polita iruditu zait". Oñati ez ezik Donostia eta Ermua ere ezagutu zituzten eta gurekin izan zirenean Loiolako Santutegia, Bilbo eta Gasteiz ere ikustekoak ziren. Eguraldia ere lagun izan zuten egonaldian: "Espainiako txoko guztietan euria diharduen bitartean, guk zorte ona izan dugu eta apenas jausi diren tanta batzuk; hortaz, ondo ibili gara".



**Marie-Andrée Selle eta Maurice Boujard** > Frantzia

Euskal Herritik beste tokiren baterako bidaian pasa dira inoiz eta Ipar Euskal Herria ere pixka bat ezagutzen zuten, baina inguruotan gelditu gabeak ziren bisitan. Hortaz, bidaia oso interesgarria iruditu zitzaien: "Oñati polita da, benetan ikustea merezi duten gauzak erakutsi dizkigute gainera. Bilbon ere izan ginen eta asko gustatu zitzaigun museoa, Artxandako ikuspegia...". Oñatira inoiz berriz itzuliko diren galdetuta zera esan ziguten: "Hori ezin da sekula aurrez esan. Gustatu zaigu ikusi dugun apurra, baina adinean aurrera goaz eta...".



**Jacqueline Combret** > Charente (Frantzia)

Frantziako Charente eskualdetik lehen aldiz etorri da aurten Euskal Herrira emakume hau. "Mediterraneo ingurua ezagutzen nuen, hondartza, baina orain mendi aldera etorri naiz eta gustukoago dut. Kostaldetik gertu bizi gara, hortaz, barrualdea eta mendietako paisaia harrigarrigarriagoak dira niretzat. Oñatik antzinako itxura du gainera, eta gauza erabat modernoak baino nahiago ditugu xarma gordetzen duten txokoak". Ostiralean bueltan joatekoak ziren eta bitartean ez zekiten zer gehiago ikusiko zuten: "bidaia sorpresa da gurea eta bisiten berri unean-unean jakiten dugu".




Dorleta Kortazar teknikaria Arrasateko Biteri etorbidean dagoen Gazte Bulegoaren kanpoan. ARRITXU BARRUSO

**GAZTEAK** > INFORMAZIO ESKAINTZA

# Gazteendako informazio bulegoen egunaren harira, zerbitzua kalera

Gazte informazio teknikariek baliatu dute urteurrena, ematen duten zerbitzua gogora ekartzeko

**IKER BARANDIARAN**> ARRASATE

Joan den egubakoitzean, apirilaren 17an, Gazteendako Informazio eta Aholkularitzarako Europako Agentziak deitutako Europako Eguna ospatu zuten. *Feel Free to ask!* lelopean izan zen deialdia, eta ibarreko hiru gazte informazio zerbitzuek ere bat egin zuten ekimenarekin: Arrasatekoak, Bergarakoak eta Oñatikoak.

Ibarreko gainontzeko herrietan, berriz, ez dago zerbitzu zehatzik, informatzailerik, ezta bulegorik ere. Hala ere, herri batzuetan Gazteria teknikariak hasi dira informazioa zabaltzen.

**ZERBITZUA EZAGUTZERA EMAN**

Egubakoitzean Arrasateko Gazte Bulegoa musikarekin eta panelekin girotu zuten, eta USB memoriak banatu zituzten.

Bergarakoak, ostera, Inter Railaren gaineko berbaldia antolatu zuten eguenean; eta datozen asteetarako hainbat ekintza antolatu dituzte: eguenean, hilaren 23an, zerbitzua udaletxeko arkupetara aterako dute; eta maiatzaren 14an udarako ekintza solidarioen gaineko berbaldia egingo dute kultura etxean.

Bide batez, ibarreko gazte informazio bulegoen arduradunen helburua da ematen duten zerbitzua ezagutzera ematea. Horretarako, kalera atera dituzte euren baliabideak eta berbaldiak antolatu dituzte herriko beste gune batzuetan.

Arrasaten Biteri etorbidean dago bulegoa; Bergaran, Errotalde jauregian; eta Oñatin, Foruen enparantzan.

**ESPETXEAK** > SAKABANAKETA

# Preso politikoen dispertsioa salatzeko bira

Euskal Herria zeharkatu duen dispertsioaren kontrako bira Eskoriatzan hasi zen, eta Arrasaten ongietorri-ekitaldia egin zuten

**MIREIA BIKUÑA/I.B.** > ARRASATE

Euskal preso politikoei ezartzen zaien sakabanaketa politikak 20 urte bete dituela-eta, Etxeratek Dispertsioaren Aurkako Bira egin zuen joan den astean. Martitzenetik domekara bitartean hainbat herri zeharkatu zituzten. Martitzenean, Eskoriatzan hasi zen; eta Arrasaten geldiunea egin zuen. Han ongi etorria egin zieten, aurresku eta guzti. Horren ostean, Oñatin auto karabana egin zuten.

Arrasaten, Etxerat taldeko kideek hitza hartu zuten. Bide batez, azaldu zuten dispertsioa "presoei eta haien senide eta lagunei ezarritako zigor gehigarria dela, dagoeneko indarrean 20 urte bete dituena". Horrez gain, gogoratu zuten "dispertsioaren ondorioz, 21 preso eta 16 senide eta lagun hil direla".

Bira Durangon bukatu zuten domekan, eta han Etxeratek ekitaldia egin zuen.




Dispertsioaren Kontrako Bira Arrasateko erdigunera heltzean. MIREIA BIKUÑA

> ETXEBIZITZAK

### Elgetako 17 etxebizitza Banco Santanderren esku gelditu dira

Salmentarako zailtasunak dituzten sustatzaileen etxeak saltzen hasi da Banco Santander. Espainian, guztira, 1.100 etxe ditu salgai; horietatik 17 Elgetan.

17 etxebizitza horiek Uriburu gunean dauden etxe adosatuak dira; porrot egin duen Lekber enpresak eraikitakoak.

> ISTRIPUA

### Auto batek farola baten kontra talka egin zuen eguenean Bergaran

Joan den eguenean, auto batek farola baten kontra talka egin zuen Bergarako erdigunean.

Istripuaren ondoren, autoaren gidariari alkoholemia proba egin zioten; eta Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, gidariak baimendutako alkohol tasa askogatik gainditu zuen.

Garbittu

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
*garbittu@euskalnet.net*

**ARANTZAZU** > KOMUNIKAZIO KANPAINA

# Arantzazuko lana ezagutzera emateko kanpaina abiarazi dute

Zapatuan jarri zuten abian mahai ingurua eginda Arantzazu Gaur Fundazioko kideek eta bi gida argitaratuko dituzte orain



Fundazioa osatzen duten bost erakundeetako ordezkariak. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > OÑATI

Arantzazu Gaur Fundazioak komunikazio kanpaina jarri du abian aste bukaeran. Zapatuan egindako mahai inguruak abiarazi zuen eta bertan elkartu ziren Fundazioa osatzen duten bost erakundeen ordezkariak, tartean Markel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia eta Lourdes Idoiaga, Oñatiko alkatea. *Arantzazuren balio erantsia gaur* izenburupean azken urteko aldaketak eta gizarteari egiten dizkion eskaintzak izan zituzten berbagai beste gai batzuen artean. Ekitaldi bukaeran argitaratu berri duten *Arantzazu gaur bisitatzeko, ezagutzeko eta bere ezaugarriez gozatzeko 12 ikuspegi* gida banatu zuten.

**URTEBETEKO LANA**

Arantzazu Gaur Fundazioa orain dela urtebete sortu zuten Aldundiaren, Oñatiko Udalaren, Mondragon Taldearen, Kutxaren eta frantziskotarren partaidetzarekin. Urte batzuk lehenago Arantzazuko santutegia berritzeko asmoarekin frantziskotarrak lanean hasi ziren eta lan horietan laguntzeko asmoarekin elkartu zitzaizkien gainerako kideak. Baita hainbat lan egin ere Fundazioak: Arantzazun eta inguruan naturarekin, kulturarekin eta jendearen arretarekin zerikusia duten baliabide guztiak sustatu eta zuzendu; jendearen arretarako zerbitzuak, hotela, denda eta Arantzazu Gandiaga zentroa kudeatu; eta orain Gandiaga Topagunean berrikuntza humanistako zentroa jartzeko asmoa daukate. Gainera, Aldundiarekin eta Oñatiko Udalarekin Parketxea jarriko dute, hau da, natur parkearen interpretazio zentroa.

Orain, urtebete honetan, Fundazioak egindako lana ezagutarazi gura dute komunikazio kanpaina abian jarrita. Horren arrazoiak hiru dira Fundazioko kideen esanetan: Arantzazu ezaguna izan arren, modu berean ezezaguna izatea eta iraganean garrantzitsua izan arren, orain isla garbirik ez izatea; euskal gizarteak ez jakitea zein aldaketa eta zein berrikuntza prozesutan dagoen murgilduta; eta Arantzazuk kontzentratzera eta natura, kultura, bakea, solidaritatea eta espiritualtasuna kontuan hartuta nor bere baitan biltzera deitzen duela jakinarazi gura izatea.

**BI GIDALIBURU**

Ekainera arte iraungo duen komunikazio kanpainarekin bat eginez, Arantzazuk eskaintzen dituen aukera guztien berri ematen duen webgunea ere jarri dute abian.

Horrez gain bi gida argitaratuko dituzte tarte horretan: batetik, *Arantzazu gaur bisitatzeko, ezagutzeko eta bere ezaugarriez gozatzeko 12 ikuspegi* gida eta bestetik, Arantzazuko bidezidorren gida berria.

etxeko leihotik



**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Denborari garrantzia larregi ematen diogu

Bizi azkar eta utzi hilotz polit bat' zen 1977an Ingalaterran punkaren bigarren belaunaldian (lehena, nahiz eta ez hain agerikoa, New Yorkekoa izan zen) askok aintzat hartu zuten leloetako bat. Sid Vicious inozoa izan zen horren errudunetako bat, eta askok jarraitu zioten kanposantura arte.

Bizitza, kontrakoa egiaztatu artean, bakarra da, eta hobe da horri ahalik eta zuku handiena ateratzea; unean unekoa disfrutatzea. Baina ez ote gara azkarregi bizi? Ez ote diogu abiadurari eta gauzak azkar egiteari garrantzia handiegia ematen? Aguro egin eta heltzearekin, erreparatzen diogu benetan egiten dugunari?

**"Hainbeste aldatuko da gure bizitza hamar minutu lehenago heltzeagatik?"**

Astean ibarreko askok berbagai izan dituzte halakoak: "Gasteizera hamar minututan joan gaitezke", "Zinemara zazpi minututara joaten naiz", "Doan da autobidea"... Gozokia aurrean jarri digute eta horri begiratzen diogu bakarrik. Garrantzitsuena da "hamar minututan" joan gaitezkeela, baina zertara? Hamar minututan merkatal gune batera, baina Gasteizera zenbat denboran? Hainbeste aldatu da gure bizitza hamar minutu lehenago joan gaitezkeelako? Iparra galduta gabiltzala uste dut... Eta, halako baten, zapatu arratsaldean Leintz Gatzagako errepide zaharrean orkatz bat ikusi genuen errepide alboan korrika, gu baino lasaiago eta seguruenik alaiago ere. Ez da zaila izango!

**> Surrealismoa**

**Euskal Herrian *TMEO* edo *Putz* aldizkari handi baten barruan bizi garela dirudi askotan: azkena, polizia nazionalak ezker abertzaleko plataformen ilegalizazioen kontra gogor egiten ez duenaren gaineko salaketa**

**> Aisialdia**

**Gasteizko lagun batek azaldu dit debagoiendarrok hiriko merkatal guneak eurek baino hobeto ezagutzen ditugula. Eman dit zer pentsa: aisialdia antolatzerako orduan aukera edo irudimen txikiagoa daukagu?**

**POLITIKA** > ERREPUBLIKA EGUNA

# Errepublikaren 78. urteurrena ospatu dute egunotan

Atzo, ekitaldi politikoa egin zuten Eibarren hainbat alderdi eta sindikatutako kideek

**M.A.** > BERGARA

Bigarren Errepublika aldarrikatu zutela 78 urte bete ziren apirilaren 14an, martitzena, eta hainbat tokitan jarri zituzten banderak urteurrena gogorarazteko, tartean, Eskoriatza eta Aretxabaletako udaletxeetan, Bergarako Fraiskozuri plazan eta ESK sindikatuaren egoitzetan.

**III. ERREPUBLIKAREN ZAIN**

Lau Haizetara Gogoan plataformak gogorarazi du herritarren borondatez sortutako sistema politikoa izan zela II. Errepublika. Era berean, Egiaren Batzordea sortu beharra aldarrikatu du frankismo garaia isilpean ez dadin geratu eta salatu du orduan hildako guztien erroldarik eta berririk ez dagoela.

Ezker Batua-Berdeak alderdiak ere bat egin du Errepublikaren urteurrenarekin: "Ez da utopia eta estatu federal eta demokratikoaren esparruan elkartasun-balioak kontuan hartzen dituen III. Errepublika aldarrikatu behar da".

Ekitaldi politikoa atzo egin zuten Eibarko Untzaga plazan Ezker Batuko eta hainbat sindikatutako kideek. Errepublikako bandera frankismoaren aurka borrokan egindako 92 urteko Marcelo Usabiagak jaso zuen.



Errepublikako bandera Eskoriatzako udaletxean, apirilaren 14an. IKER BARANDIARAN

**ERRENTA** > KANPAINA HASIERA

# Errentaren kanpaina bihar hasiko da eta ekainaren 25a arte dago zabalik

Autolikidazio proposamenak onartzeko azken epea maiatzaren 8a da

Ogasun bulegoan mekanizatua egiteko txandak ematen gaur hasi dira

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA

Bihar, apirilak 21, hasiko du Errenta eta Ondarearen kanpaina Aldundiko Ogasun departamentuak. Ekainaren 25a bitartean izango dute herritarrek 2008ko errentaren kontuak argitzeko epea eta hainbat bide eskaini dituzte horretarako. Gipuzkoan, iaz, 382.581 aitorpen aurkeztu zituzten eta Debagoienean, 37.320.

**AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENAK**

Kanpaina bihar hasi arren, autolikidazio proposamenak dagoeneko jaso dituzte askok etxean eta joan zen eguaztenetik aurrera onartzeko aukera dago. Horiek maiatzaren 8a arte izango dute epea erantzuna emateko. Bederatzigarren urtez gertatu dituzte aurten autolikidazio proposamenak; iaz, esaterako, 176.011 proposamen bidali zituzten, eta horietatik 146.884 onartu. Aurten gehiago bidali dituzte, 205.443 proposamen hain zuzen; horietatik itzultzekoak dira 172.696 eta ordaintzekoak, 32.747. Itzultzekoen kasuan, proposamena onartzen denetik hiru eguneko epean ordainduko dute dirua. Aitorpena ordaintzekoa bada, ostera, bi modutara ordain daiteke: bi zatitan –%60 ekainaren 30ean eta beste %40 azaroaren 10ean– edo dena batera ekainaren 30ean.



Bergarako Ogasun bulegoan lanean, iazko errenta kanpainan. I.A.

**AITORPEN MEKANIZATUA**

Autolikidazio proposamenik jaso ez dutenek eta onartu ez dutenek, beste bide batzuk dituzte egiteko bihartik aurrera: mekanizatua Ogasun bulegoan, Internet bidezkoa eta papererezkoa. Mekanizatua egiteko Foru Ogasunak Bergaran duen bulegora joan behar da eta horretarako aurrez hartu behar da txanda. Gaur bertan hasiko dira ematen txandak Internet bidez eta 902 100 040 telefono zenbakira deituta. Gipuzkoan, iaz, 103.597 lagunek hautatu zuten mekanizatua egitea; horietatik, 8.363 debagoiendarrak izan ziren. 2006an baino %1,96 gehiago izan ziren mekanizatua egindako debagoiendarrak.

Aitorpena finantza entitateen bidez aurkeztea aukeratzen duten herritarrek –Kutxa, Euskadiko Kutxa, Caja Rural, La Caixa edo Banco Guipuzcoano– zerga informazioko datuetan sartzeko baimena eman diezaioke te entitateari.

## 2007ko aitorpenak

| HERRIA | EGINDAKO GUZTIAK | EUSKARAZ EGINAK |
|---|---|---|
| Gatzaga | 125 | 14 |
| Eskoriatza | 2.527 | 147 |
| Aretxabaleta | 4.147 | 408 |
| Arrasate | 13.183 | 960 |
| Elgeta | 576 | 66 |
| Oñati | 6.800 | 550 |
| Bergara | 8.677 | 880 |
| Antzuola | 1.285 | 236 |
| **Guztira** | **37.320** | **3.261** |

ITURRIA: ALDUNDIKO OGASUN SAILA

**GUREAK** > JATETXEA

# Jatetxea zabalduko du Gureak Taldeak Garaia Gunean

400 metro koadro izango ditu jatetxeak eta self service erako menuak emango dituzte; uztail inguruan zabalduko dute

**M.A.** > ARRASATE

Gureak Taldeko ostalaritza arloak jatetxea zabalduko du Garaia Berrikuntza Gunean. Gureakek Gipuzkoan emango duen seigarren ostalaritza zerbitzua izango da eta zortzi lagunek egingo dute lan bertan. Gureak Taldeko arduradunek aurreikusita dituzten epeak betez gero, uztailerako lanean izango dira Garaia Berrikuntza Guneko beheko solairuan.

Self service erako jatetxea jarriko dute. 400 metro koadro inguru izango ditu jatetxeak; erdia baino gehiago publikoarendako eta bestea sukalderako, komunendako… Gainera, alboan, 50 bat metro koadroko lokala izango du, aurrerago beste era bateko jatekoak emateko aukera izanik. Jatetxea astelehenetik egubakoitzera zabalduko dute, langileen egutegia kontuan hartuta, eta ordutegia izango da 07:30etik 19:00etara. Egunean 300 bat menu ematea aurreikusten dute eta menu horiek 8 euro ingurukoak izango dira. Menuaz gain, plater konbinatuak, ogitartekoak eta pintxoak ere izango dituzte tabernan.

Gureak Taldeko ostalaritza saileko arduradunek gurako lukete maiatzean hastea egokitze lanekin. Hala, uztailerako zabalduko lukete jatetxea eta irailerako martxa hartuta egongo litzateke langileak.

**ZORTZI LAGUNEKO LAN TALDEA**

Zortzi lagunek egingo dute lan jatetxean. Horietatik seik sukaldeko lanak eta garbitasun lanak egingo dituzte. Adimen urritasunak dituztenak izango dira seiak. Beste biek zerbitzari lanetan jardungo dute eta horiek gutxitu fisikoak izango dira.

Gureakek badu eskarmentua ostalaritza sailean. Donostiako Unibertsitateko kanpuseko jatetxearen ardura dauka azken 10 urteotan eta Miramongo Zientzia Kutxaguneko kafetegiarena ere bai.

Debagoienean, ostera, bi tailer ditu bata Bergaran eta bestea Arrasaten. Azken horretan 150 bat lagunek egiten dute lan.

> FAGOR

### Mondragon Taldeak Polonian dituen zortzi lantegien artean 290 milioi euro jaso zituen iaz

Zortzi lantegi ditu Polonian Fagor taldeak. 3.000 bat langileri ematen diete lana lantegiok eta guztien artean 290 milioi euro jaso zituzten iaz. Polonian dauden ordezkarien esanetan, krisiak beste leku batzuetan baino gutxiago eragin du Polonian; horregatik merkatu estrategikoa izaten jarraitzen du.

Polonian jarritako lehen lantegia Fagor Mastercook izan zen, 1999an hain zuzen, eta ondoren besteak iritsi ziren. Fagor Mastercook-ek jarraitzen du izaten lantegirik garrantzitsuenetakoa: 1.860 langile ditu eta 186 milioi euroko fakturazioa. Gainera, etorkizunera begira ere, modu garrantzitsuan joango dela hazten iragarri dute bertako ordezkariek.

> KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

### Gipuzkoan %0,4 egin du gora kontsumo prezioen indizeak duela urtebetetik hona

Kontsumo prezioen indizearen (KPI) azken datuak eman ditu egunotan Espainiako Estatistika Institutuak eta jakinarazi du Euskal Autonomi Erkidegoan zertxobait gora egin dutela iaztik hona: Bizkaian %0,5; Gipuzkoan %0,4 eta Araban %0,3. Nafarroan, ostera, jaitsi egin da KPI; %0,2 egin du behera.

2009ko otsailarekin konparatuz, martxoan gora egin zuten prezioek lau herrialdeetan: Nafarroan eta Gipuzkoan %0,4, Bizkaian %0,3 eta Araban %0,1.

Aurten emandako datuen arabera, ostera, denean egin du behera kontsumo prezioen indizeak: Nafarroan eta Araban %1,4, Bizkaian %0,9 eta Gipuzkoan %0,8.

auzorik auzo

**ETXAGUEN** > Hegoaldean, Arangioko haitzen oinean, Etxaguen auzoa dago, eta Oletarekin batera udalerriko auzo garaiena da. Ikustekoak dira berritutako errota eta baserri zaharrak; gainera, mendira joateko leku paregabea da.



Iban Astola, auzoko errotaren aurrean. A.E.

**Iban Astola** > Auzo-alkatea

# "Plan Orokorraren zain gaude auzoko bazterrak konpondu eta txukun uzteko"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Auzo lokala dute Etxaguenen, auzotarrak bildu eta euren arazoak eztabaidatzeko. Azkenaldian, Plan Orokorrarekin kezkatuta dabiltza. Iban Astola da auzo-alkatea azkeneko bi urteetan; harekin izan gara auzoko gorabeherak aztertzen.**

**Zein da gaur egun auzoaren egoera?**

Esan daiteke orain nahiko utzita dagoela auzoa; utzita baino gehiago, apurtuta dago ur arazoak direla-eta. Errepidean ere zulo batzuk daude. Plan Orokorrari itxaroten gaude dena konpondu eta auzoa txukun uzteko.

**Bideak nahiko hondatuta daude; horrek kezka eragiten du?**

Bai, batez ere soroetako bideak. Mendiko bideak konpondu egin beharko lirateke. Baserri guztietarako bideak asfaltatuta daude, Ipurtotzerakoa izan ezik; han porlanezko bidea dago.

Bestalde, negu partean hainbat arazo izaten ditugu elurrarekin, baina esan behar da azkenaldian nahiko ondo gabiltzala. Auzokide batek elurra kentzeko makina dauka, eta hark egiten ditu lanok.

**Nondik hartzen duzue ura? Eta gasa?**

Ura Azbarrenetik hartzen dugu, haitzen azpitik irteten dena. Ur hodiak sartuta daude, baina orain berritu egin behar dituzte, depositutik baserrietarako hodi batzuk apurtu egin direlako.

Gasarekin zer egin erabaki barik dago; orain arte butanoarekin ibili gara, eta etxe gehienetan txapa daukagu. Plan Orokorrean gasa onartu zen; eta aztertzen dabiltzan beste auketako bat da energia berriztagarria erabiltzen duen berogailua jartzea.

**Mendizale ugari etortzen da inguru honetara. Autoak uzteko nahiko leku badago?**

Plan Orokorraren arabera, bideak zabalduko dira eta aukera dago aparkalekuak jartzeko bide ertzean; baina horretarako, ertzetako lur zatiak hartu beharko lirateke. Eguraldi ona egiten duenean mendira jende asko etortzen da. Eta auzo guztia autoz betetzen da; horregatik, aparkaleku beharra ikusten dugu. Bestalde, bideak ez dira oso zabalak; urgentzia baten aurrean ez dago bide egokirik.

**Auzoan ikusteko azpimarragarriena errota da?**

Errota aspaldikoa da, lehen auzotarrek erabiltzen zuten etxeko garia eta artoa ehotzeko. Gaur egun, berrituta dago, baina ez dauka erabilpenik. Gure esku dago erakustea eta mantentzea. Gainera, San Migel eliza dago, eta aldamenean hilerria.

**Auzoak eman du pertsonaia ezagunik?**

Hemengoa zen On Anbrosio abade marianista, Gasteiz aldean ere ezaguna zena. Ipurtotzekoa zen, eta Almenen eta Gasteizen ibili zen irakasle lanetan.

**Gainera, Aramaioko auzo garaienetarikoa da Etxaguen.**

Bai, 630 metro inguruan dago kokatuta auzoa.

MENDIA

## "Anbotora joateko bidea dago, samurra eta polita dena"

Auzoan egin daitekeenaz galdetuta, mendi martxak proposatu dizkigu Astolak: "Anbotora joateko bidea dago: samurra da eta, gainera, oso polita".

Arangio mendien azpian kokatutako auzoa Urkiolako parke naturalerako sarrera da. Auzora joaten diren mendizale gehienak Anbotora edo Orixolera joaten direla azaldu du Astolak: "Auzotik Anbotoko zelai azpira, Anbotostera, ordubete inguru dago", dio. Bidea hondatuta dagoela eta jendea kexatu egiten dela dio.

Gaineratu du gastronomia aldetik auzoak ez duela inolako eskaintzarik ematen.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Apirileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARREREK

Bruesa-Ricoh Manresa partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

KAMISETA+DVD
DANBAKA

Danbakako kamiseta eta DVD bat.
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra

KAMISETA
skunkfunk

Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.

PEN-DRIVE

Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Aralar taldeak gora egin du nabarmen azken hauteskundeetan. Legebiltzarrean ordezkari bat izatetik lau izatera pasa dira, eta horietako bat Elgetako alkate Oxel Erostarbe da. Sozialistek eta popularrek egindako akordioaren, legez kanporatzearen, hauteskundeetako emaitzen eta ETAren gainean mintzatu da Erostarbe legebiltzarkidea elkarrizketan.

**Oxel Erostarbe** > Aralar taldeko legebiltzarkidea

# "ETA desagertzean, geldiezina izango da ezker abertzale berriaren indarra"

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**Elgetako alkate Oxel Erostarbe da Aralar taldeak legebiltzarrean estreinatu berri duen lan-taldeko kideetako bat.**



Oxel Erostarbe Gasteizen, Eusko Legebiltzarreko sarreran.

GOIENKARIA

**Ibarretxerekin solasean ikusi zintugun Legebiltzarrean, mahaia osatzerakoan. Zer moduz, estreinaldia?**

Eskertzekoa da lehendakariak ongi etorria egitea. EAJk bultzatutako politika askorekin ez nago ados, batez ere arlo sozialari edo azpiegiturei dagokienetan. Baina aitortu beharra dago Ibarretxek pausoak eman dituela erabakitzeko eskubidearen alde; ez dut ulertzen EAJko sektore batek Ibarretxerekin duen jarrera.

**Oposizioan egotea izango da zuen lana? Zelakoa?**

Esan genuen oposiziotik eragitea zela gure lehentasuna, ez gobernuan egotea. Oposizioan gauden erakundeetan oposizio zorrotza, baina era berean eraikitzailea egiten dugu; eta legebiltzarrean ere horri eutsiko diogu.

**Zeintzuk izango dira Aralarren lehentasunak Eusko Legebiltzarrean?**

Krisiari aurre egiteko neurriak hartzeak izan behar du lehentasuna eta guk gura genuke neurri horiek sindikatu eta bestelako eragileekin adostea. Horretaz gain, ez dugu atzera pausorik onartuko euskaran, hezkuntzan eta sufrimendu guztien aitortzan.

**Zer iritzi daukazu sozialistek eta popularrek lortutako akordioaren gainean?**

Akordioak aitortzen du hemen herri desberdin bat dagoela. Ez da kasualitatea alderdi konstituzionalistak Nafarroan eta EAEn elkartzea. Gehiengoa abertzalea duen erkidegoan Patxi Lopez izango da lehendakari, PPren babesarekin.

**Parlamentuko presidenteak eta lehendakari izango denak euskaraz ez jakitea zeren adierazle da?**

Euskaldunoi begira errespetu falta bat iruditzen zait euskaraz dakien pertsona bat ipintzeko aukera izan eta erdalduna izatea parlamentuko presidentea. Larriagoa PSE-EEk PPk egindako aukerari amen egitea. Patxi Lopezek ikasiko du euskaraz, lau urte ditu horretarako.

**Hauteskundeen emaitza orokorrei dagokionean, zein da egiten duzun hausnarketa?**

Zilegia den aukera bat kanpo uzteak baldintzatu egiten du analisia. PSE-EEk uste baino emaitza okerragoak izan ditu; EAJk gora egin du Ibarretxeri esker; eta ezkerreko eta abertzaleon artean gero eta gehiago gara ez gaudenak prest ETAren zain egoteko.

**EA, Aralar, Ezker Abertzalea... Abertzaleak eta ezkerrekoak diren horrenbeste alderdirendako tokirik ba al dago?**

Ezker Abertzale berriaren oinarriak zehaztu ditu Aralarrek: ezkerrekoa, abertzalea, zibila eta zabala. ETAk desagertzea erabakitzen duenean geldiezina izango da ezker abertzale berriak izango duen indarra.

**Europako hauteskundeetara aurkeztuko zarete ERCrekin batera. Zer da Europan egotea lortuz gero, defendatuko duzuena?**

KONSTITUZIONALISTAK

**"PSE-EE eta PPren arteko akordioak aitortzen du hemen herri desberdin bat dagoela"**

HITZA

**"Ezkerreko eta abertzaleon artean gehiengo bat gara arma moduan hitza erabili gura dugunak"**

EUROPA

**"Europan politika sozialak eta fiskalitate aurrerakoia bultzatuko ditugu koalizioan"**

Koalizio berria osatu dugu ERCk eta Aralarrek, beste alderdiei zabalik dagoena. Politika sozialak eta fiskalitate aurrerakoia bultzatuko dugu eta era berean Europan herriok gure lekua izatea defendatuko dugu.

**Legebiltzarkide bat izatetik lau izatera pasatu da Aralar. Espero zenituzten emaitzok? Zein irakurketa egiten duzue?**

Ezkerreko eta abertzaleon artean gehiengo bat gara arma moduan hitza erabili gura dugunak. Ezker abertzale berria egituratzeko gogoaren eta lau urtean egindako lanaren ondorioz, babes zabala lortu dugu. Gazteek babestu dute Aralar. Gora egin dugu eta orain lan egitea dagokigu, emandako konfiantzari behar den moduan erantzuteko.

**Askok uste dute, orain arte ez bezala, oraingoan kanpaina indartsua egin duzuela. Horrek ere izan du eragina?**

Kanpainan mezu argia eman dugu, baina uste dut independentziara bidean elkarlanaren aldarria egitea eta erakundeetan politika aurrerakoien alde egitea izan direla gure emaitza onen arrazoia.

**Gizartean asko dira Ezker Abertzalea ezin aurkezteak zuei boto asko eman dizuetela diotenak. Zuen emaitzek errealitatea islatzen dute?**

Botoak herritarrenak dira eta eurek dakite ondoen zergatik babestu duten aukera bat edo beste. Aralarren aldeko hautua egin duten askok Aralar sendotzea etorkizunean ezker abertzale indartsu bat izateko aukera onena dela sinistuta egin dute.

Ezker abertzalea osatzen dugunon gehiengoak barneratuta dugu ETAren garaia atzean lagatzeko ordua dela. Denbora kontua da ezker abertzalearen gehiengoak ETAren borrokaren gainean Aralarrek esandakoak bere egitea.


Ama bakarra.
Lurra bezala.
Zain dezagun
Apirilak 22,
lurraren nazioarteko eguna
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
ingurumena.net
Gure esku dago
está en nuestras manos

## kale inkesta

# Irakurtzeko ohiturarik baduzu? Zer irakurtzen duzu? Zein da irakurri duzun azken liburua?



**Jokin Biain**
Ikaslea
Bergara

Bai. Duela egun batzuk Pablo Motosen liburua oparitu didate. Nik, hala ere, normalean historiari buruzkoak irakurtzen ditut. Orain, adibidez, *El gen egoista* ari naiz irakurtzen. Udan gutxiago irakurtzen dut.



**Txema Aragones**
Langilea
Bergara

Denbora dudanean irakurtzen dut, oporretan nagoenean. Normalean erosi egiten ditut eta liburutik salduenetako bat aukeratzen dut, adibidez *El código Da Vinci*. Dan Brown idazlearen denak irakurri ditut.



**Amaia Gorosabel**
Langilea
Arrasate

Bai, irakurtzen dut, eleberriak gehienbat. Aspaldian gazteleraz irakurri ditut, baina euskaraz ere irakurtzen ditut. Idazlearen arabera ere erosten ditut liburuak. Umeendako, liburutegian ere hartzen ditut.



**Leire Altuna**
Langilea
Bergara

Bai. Normalean eleberriak irakurtzen ditut, fikziozkoak zein historikoak, eta ingelesez. Liburu-dendan eskatzen ditut eta arazorik gabe ekartzen dizkidate. Orain Ken Follet-en *Word without End* dut eskuartean.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Argirik ez AP1 autobidera sartzeko**

Bergarako bizilagun batek deitu du erredakziora esateko argirik ez dagoela Telleriako biribilgunearen inguruan: "Farola guztiak itzalita daude, ez dago batere argirik inguru horretan aspaldian. Ilun dago AP1 autobidera sartzeko bide hori". Farolak lehenbailehen piztea eskatu du bergararrak, bide batez.

ARAMAIO
**> Kurtzetako errepidea, oso egoera txarrean**

Aramaioar batek haserre idatzi digu esanez Kurtzeta mendatearen hasieran errepidea oso egoera txarrean dagoela. Antza denez, eurien ondorioz lurjausi asko izaten dira urtero-urtero. Irakurle honek adierazi digu behin-behineko konponketak egiten dituztela, baina berehala berriro ere apurtzen dela errepidea. Momentu honetan oso arriskutsu dagoela gaineratu du. Oleta auzorako errepidea ere "lotsagarri" dagoela dio, "zuloz josita".

BERGARA
**> Umeen igerilekuan ura hotza egoten da**

Bergaran umeen igerilekuko ura hotzegia egoten dela kexatzeko deitu du emakume batek. "Ura oso hotza egoten da igerileku txikian. Hara joaten diren ume batzuk urtebete ere ez daukate oraindik, eta dardarka egoten dira", esan du. "Gainera, familiako aldagelan entxufe gutxi daude ilea lehortzekoa entxufatu eta ilea ahalik eta azkarren lehortzeko", jarraitu du.

## usteak uste

**Arritxu Barruso**

# Etxebesteren moduan, ala?

Denbora dezente daramagu krisiaren inguruan berbetan. Hilabetetik hilabetera egoera are beltzago azaltzen digute hedabideek eta politikariak ere hasi dira apurka-apurka errealitate gordina aitortzen. Ibarrean enpresa askok erregulazio espedienteak aurkeztu dituzte. Langabeziari dagokionez, berriz, azken datuek diote gure ibarrean 3.469 langabe daudela. Errealitatea beltza dela ezin da ukatu. Baina, bestelako errealitatea sumatu dut Aste Santuko opor hauetan. Krisia krisi, kontua da oso gutxi izan direla herria zaintzen etxean geratu direnak. Asteburuan Mallorca, Benidorm, Salou, Paris eta Pragako istorioak entzutea tokatu zait. Josetxo lankideak esan moduan, *Aupa Etxebeste* filmean bezala kanpora joan direla esan eta etxean gelditu ez badira, ez dakit nik non dagoen krisi famatua.

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# Urarenak

"Madrilgo asanbladaren osoko bilkura hamabost minutuko ika-mika batekin hasi zuten. Iskanbila Ganberako presidente Elvira Rodriguez eta diputatuen artekoa izan zen. Rodriguezek galerazi zien aulkietan ur botilak izatea, ura jausi eta bozketa sistema elektronikoa honda ez dadin".

El Diario Vasco > 2009-04-17



Behinguagatik, geure zilborrarenak bake-bakian laga eta auzuan zer barri dan jakite aldera, antiajuen ostetik bada be, etxekonera begiratzeko burutaziñua izan dot oinguen. Eta ura dala-eta, zalapartan harrapau dot ollategixa.

Sudango Darfur? Hango negar eta mingar latz miña jardunkizun? Niger edo Txad? Afrikako bi estatu horretako nahi eta eziñ etsigarrixak? Ala Tajo eta Segura Españako erreken arteko ur-karriua kloroz gozatu nahixa da batzuen gaurko jardunbidia?

Ba ez, ez; horrek danak baño kontu garratzagua da gaurkuan nire kezkia, narru-haundirik lotsabakuena be xehe-xehe eginda lagatzeko tamañako kontua.

Hara: Madrilleko parlamentu autonomikuan diputau-jendiari debekatu egin zotsen, joan dan astian, parlamentuko jardunetan ura edatia, hori egittiak botua emotia trabau egitten dabelako! Itxuria danez, parlamentarixei ura errez samar jausten jaten edaterakuan, eta hori jazotzen danian botaziñotarako sistema elektronikua blokeauta geratzen da! Eta hori pasauta, ezin botau, jakiña!

> **"Parlamentuan debekatu daue ura edatie, botu emotie trabau ez deixen"**
>
> **"Madrildarrek izango dabe beste buruko miñik?"**

Protesta eta ika-mika mikatz samarren ondoren, (barkatu, debate serio-serio baten ondoren, argituko dot) egarri zirenei/direnei ura edaten lagatzia erabaki zeben.

Krisiari aurre zela demonio egin? Madrildarrak era batera edo bestera arazo daben auziren bati heldu? Pentsatzen hasitta, sei milloi pasa madrildarrek izango dabe bestelako buruko miñen bat, ezta? Jakiña, uraz era batera edo bestera arduratzia, ura bera debate-gai bihurtzia ez da ba etorkizunaz arduratzia? Ahor ba!

Baña auzi-mauzi harrigarrixari erreparau dotsen hedabidiak, zeiñek bere erara, konponbidera iristeko bidiari be xelebre samarra iritsi dotse: Esperanza Aguirre erkidegoko presidentia danak ebatzi zeban-eta, kontua ika-mikaren miñian botella-bete ur hartu eta debate-edo zana zalakuari berari paso egiñez! Hau mundua.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arritxu Barruso, Oihana Elortza **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> ARRASATE**
Etzi egingo dute batzarra Iturbideko langileek eta Udalak; greba etenda dute Untzako langileek **> 14**



**> ARRASATE**
Arrasate Dragoi gimnasia Espainiako txapelketara, Euskadikoan hirugarren gelditu ostean **> 15**



**> BERGARA**
Zabalotegiko lorategiak konpondu egingo ditu Udalak; 12.000 euroko aurrekontua daukate **> 16**



Irudian, organo eskolen bultzatzaileak: Iñigo Mitxelena Pedro Deunaren parrokiako apaiza, Aitor Olea eskolen irakaslea eta Marije Ugalde Bergarako Musika Eskolako zuzendaria. J.B.

**BERGARA** > ORGANO ESKOLAK

# "Organo joleok azken 'mohikanoak' gara; jolerik ez badago, hil egingo da"

**AURKEZPENA**
Apirilaren 7an kontzertu didaktikoa egin zuten organo eskolak aurkezteko

**HELBURUA**
Eskolen helburua da organoa herritarrei gerturatzea, belaunaldi etenik egon ez dadin

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Elizako koruetan *ezkutatuta*, instrumentu ezezaguna da organoa gehienontzat. Bada, Bergarako Musika Eskolari, Elizari eta Aitor Olea organo joleari esker, ezezaguna zaigun instrumentua ezagutu eta jotzeko aukera izango da. Izan ere, organo eskolak antolatu guran dabiltza.

Hala, bergararrei organo eskolen berri eman eta interesa pizteko kontzertu didaktikoa egin zuten joan den apirilaren 7an Pedro Deunaren parrokian. Kontzertua Apirilean musika egitasmoaren barruan antolatu zuen Bergarako Musika Eskolak.

**ORGANOA, AURREZ AURRE**

Kontzertu didaktikoa organoaren aurrean jarraitu zuten Pedro Deunaren parrokiara gerturatu zirenak. Ordubete pasatxo iraun zuen emanaldian, Aitor Olea organo jolea eta eskolen irakasle izango dena izan zen gidari. Hasieran organoari buruzko bideo emanaldi laburra izan zen ikusgai, instrumentuari buruzko oinarrizko xehetasunak ezagutarazteko. Gero, Pedro Deunaren parrokiako organoa aurkeztu zuen Oleak, eta horretarako, besteak beste, Schuberten, Dvorak, Verdi eta Beethoven musikarien pieza laburrak jo zituen. Eta bukatzeko, organo errezitaldia egin zuen Durangoko organo joleak.

**'AZKEN MOHIKANOAK'**

Oleak organo eskolen helburu nagusia organoa herritar guztiei gerturatzea dela adierazi du. Baina, umeei dago bereziki zuzenduta, egungo belaunaldi etenaldiari aurre egiteko.

Hala ere, ikastaroak beste funtzio garrantzitsu bat izango duela ere jakinarazi du Oleak. Etorkizuneko organo joleak heztea, hain zuzen: "Organoak badaude, baina organo jolerik ez; organo joleok azken *mohikanoak* gara". Eta hori horrela, dio Oleak, "organo jolerik ez badago, organoa hil egingo da".

ESKOLENDAKO ORGANOA

## Elizak Alemaniatik ekarri duen organo berria asteon hasiko dira muntatzen

Eliza organoaren bizileku izaki, paper garrantzitsua jokatu du Elizak hura salbatzeko, organo txiki bat ekarri du-eta Alemaniatik. Apirilaren 9an heldu zen Bergarara eta asteon hasiko dira muntatzen, Santa Marinako etxean -gero Siervas elizan jarriko dute-. Elizako organoak -"brontosaurioak", Olearen hitzetan- handiegiak dira organoa jotzen ikasteko. Eta Alemaniatik heldu den organoa espresuki zeregin horretarako dago egina.

16 erregistro dituen organoa da, guztiz mekanikoa. 1978an eraikia, honako hauek dira bere neurriak: 2 metro 15 zentimetroko altuera eta zabalera eta 2 metro eta 25 zentimetroko sakonera. Elizak inbertsio esanguratsua egin du organoa erosten, izugarri garestiak baitira. Bigarren eskukoa izan arren, guztira 45.000 euro inguru xahutu ditu organo berrian.

**ARAMAIO** > KIROL-AUTOMOBIL KLASIKOEN MARTXA

# Real Peña Motorista elkarteko automobil klasikoek ikuskizun polita eskaini zuten



Bizkaiko Real Peña Motorista elkarteko kideak Oleta auzoan automobil klasikoekin. JOSETXO ARANTZABAL

## 70 auto klasiko inguru bildu ziren zapatu goizean Aramaioko Oleta auzoan

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Bisita berezia izan zuten Aramaioko Oleta auzoan zapatu goizean. Egubakoitzean hasi eta domekara bitartean Rallyestone 2009 izeneko kirol-automobil klasikoen martxa egin zuten Bizkaiko Real Peña Motorista elkarteko kideek eta Aramaion geldialdia egin zuten. Oleta auzoan denbora-kontrola egin zuten eta minutu batzuetan autoak gertu-gertutik ikusteko aukera izan zen. Izan ere, horrelako martxak ez dira lehiaketa moduan planteatzen, denbora jakin batean ibilbide zehatz bat egitea izaten da helburua.

Ikusgarriak ziren benetan automobil guztiak. Kontuan izan behar da auto klasikoak izanik berrienak 25 urte baino gehiago zituela.

**ARAMAIO** > ARBEL EGUNA

# Baserritarren eguna ospatu zuten gaztetxoenek ere


Aramaioko gaztetxoak, zapatu goizean, herriko plazan herri jolasak egiten. JOSETXO ARANTZABAL

## Arbel Eguna ospatzeko herri kirolekin lotutako jolasak egin zituzten herriko plazan

**A.B.** > ARAMAIO

Aramaioko Baserritarren Elkartearen (Arbel) Eguna ospatu zuten Aramaion zapatuan. Baserritarrek batzar orokorra egin zuten, eta horren ostean bazkaria izan zuten eskolako jangelan. Baina baserritarrak ez ziren izan ospakizunetan ibili ziren bakarrak. Arbeleko kideek jolasak antolatu zituzten herriko gaztetxoenendako zapatu goizean. Herri kirolekin lotutako jolasak izan ziren guztiak eta egurrarekin egindakoak denak.

Umeek bi arduradunen laguntza izan zuten jolasak egiterako orduan. Honako ekintzak egin zituzten, besteak beste: sokatira, hankapaloak eta karretilla lasterketa. Baserritarren eguna izanda, jolas benetan aproposak. Arduradunek giro polita ipini zuten herriko plazan eta umeei behin eta berriz gogorarazi zieten Arbel Eguna ospatzen zihardutela.



**BERGARA** > KONTZERTUA GAZTETXEAN

# Hardcorea eta 'rock urbano'-a entzungai izan zituzten

Bartzelonako Batacazo eta Burgosko Eslabon taldeek kontzertua egin zuten gaztetxean

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA
Egubakoitzean gazte batzarrak antolatutako kontzertua egin zuten gaztetxean. Asmoa zen kanpoko hardcore taldeak ibarrera ekartzea, eta horretarako Burgosko Fragment diskoetxekoen laguntza izan zuten; beste hainbaten egin izan duten moduan.

Zoritxarrez, iragarritako taldeetako batek, Misplace izenekoak, arazoak izan zituen eta ezin izan zen Bergarara etorri. Aurretik izan zuten horren berri eta arrazoi horregatik, Burgosko ordezkoren baten bila hasi ziren Fragmentekoak; eta azkenean Eslabon ekarri zuten. Talde horrek *rock urbano*-a egiten du, Marea eta Extremoduro taldeen antzekotasunekin.

Hasiera baten antolatzaileek zuten ideiarekin bat ez etozen arren, gaztetxean bildutakoek ondo hartu zituzten Eslabon taldekoen kantuak.

**BARTZELONATIK, BATACAZO**
Horren ostean, Fragment diskoetxearekin lan egiten duen Batacazo taldea igo zen agertokira. Hardcore oso azkarra egiten dute, crust-arekin mugan dagoena. Gustura hartu zuten Bergarako hardcore zaleek Bartzelonakoen eskaintza. Are gehiago, interpretatu zituzten Misfits eta, batez ere, Bad Brains taldeen bertsioak.

Datorren egubakoitzean Bilboko Insanity eta Zaunka, eta Elorrioko Trapatoni izango dira gaztetxean.


Burgosko Eslabon taldeak hasi zuen kontzertua. J.A.



IURGI DUQUE

**ARRASATE** > GAZTETXEA

## Etxeko txikienak, gaztetxean pozik

Arrasateko Gaztetxearen urteurrenaren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte asteburuan. Zapatu goizean Besaidera irteera egin zuten; eta arratsaldean, bestetik, ohikoak baino gaztetxoagoak ikusi genituen Gaztetxean. Haurrendako tailerrak antolatu zituzten eta guraso eta umeek pozik jardun zuten jolasean. Aurpegiak margotu, marrazkiak egin eta jolasean ibili ziren. Gurasoei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek eta azaldu dute berriro ere halakoak antolatzeko asmoa dutela.

**ARAMAIO** > BIGARREN ESKUKO LIBURUEN AZOKA

# Euro baten truke liburuak erosteko aukera, zapatu goizean

Eguenean Liburuaren Eguna ospatuko delaeta, bigarren eskuko liburuak saldu zituzten zapatuan herriko plazan; dirua GKE bati emango diote

**A.B.** > ARAMAIO
Apirilaren 23an, eguena, liburuaren eguna ospatuko da. Hori dela eta, Aramaioko gazte talde batek bigarren eskuko liburu azoka antolatu zuen zapatu goizerako.

Azoka, herritarren laguntzari esker egin ahal izan zuten; izan ere aurreko asteetan liburuak batzen jardun dute eta bildutako guztiak, gero, salgai ipini zituzten zapatuan. Liburuak euro baten truke eros zitezkeen eta batutako dirua Gobernuz Kanpoko Erakunde bati emango diotela iragarri dute.

Azokaren antolatzaileak pozik daude herritarrek erakutsitako interesarengatik. Adierazi dute Arbel Eguna izanda, giro polita zegoela herriko plazan, eta horrek jendea euren azoka txikira hurbiltzera animatzen zuela. Dena dela, azaldu dute aurten beste urte batzuetan baino liburu gutxiago batu dituztela. Hori horrela, salmentak ere txikiagoak izan dira. Guztira, 60 liburu inguru saldu zituzten.



Bigarren eskuko liburuen azoka egin zuten herriko plazan. JOSETXO ARANTZABAL

**ITURBIDEKO EGOITZA** > GREBA ETENDA

# Etziko bileran zehaztuko da Udalaren proposamen berria

Eskaintza berriaren aurrean greba etetea erabaki zuten Untzako langileek, Aste Santu hasieran

Udalak eskaini die lau urtetan soldata %30,65 igotzea eta Udaleko langileen igoerak aplikatzea

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Iturbideko egoitzan lanean diharduten Untza enpresako langile azpikontratatuen auzia bere onera etortzen ari dela dirudi. Hala ere, oraindik ezin da greba amaitu denik esan, eguaztenean Untzako langileek Udaleko ordezkariekin izango duten bilera erabakiorra izango da-eta. Hasiera batean joan den egubakoitzean, hilak 17, egin behar zuten batzarra baina Pazko Astean udaleko zenbait teknikari oporretan izan direla-eta etzira arte atzeratzea erabaki zuten.




Untzako langileek martxoaren 24an ekin zioten grebari eta ordutik euren protestak oihartzuna izan du. Irudian, protesta osoko bilkurara eroan zuten eguna. GOIENKARIA

Untza enpresako langile azpikontratatuek martxoaren 24an hasitako greba etetea erabaki zuten Aste Santu hasieran. Grebari Udaleko langileen baldintza berak lortzeko ekin zioten; labur esanda, baldintzen parekatzearen alde hasi ziren borrokan. Bada, ordutik astero bildu izan dira udaletxe aurrean eta osoko bilkura batera ere eroan zuten euren protesta –irudian–.

**UDALAREN PROPOSAMENA**

Iturbideko egoitzan diharduten Untzako langileek euren ahotsa ozen entzunarazi arren, ez dute, oraingoz behintzat, eskatutakoa lortzerik izan. Honakoa da Udalak egin dien azken proposamena: lau urteren buruan langile bakoitzari soldata %30,65 igotzea eta urteko Kontsumo Indizeen prezioa (KPIa) eta Udaleko langileei aplikatzen zaizkien igoerak linealki eurei ere aplikatzea.

Proposamen horren aurrean greba etetea erabaki zuten Untzako langileek, eta Udalarekin bildu arte lanean jarraitzea. Hori horrela, Juan Ramon Garai ESK sindikatuko kide eta grebaren koordinatzaileak jakinarazi duenez, "eguazteneko bileran gertatzen dena ikusi beharko da, Udalaren proposamena zein epetan eta nola gauzatuko den zehazten denean".

**UNTZAK ESLEIPENARI UKO EGITEA**

Bestalde, Untza enpresak zerbitzuaren esleipenari uko egitea ere kaltegarria litzateke langileendako. Langileen ustez "enpresa azpikontratatu batek betebehar batzuk ditu enpresa kontratatzaileekin, eta beraz, enpresak lana betetzen jarraitu behar du".

**AED** > XXII. ARRASATE LITERATUR LEHIAKETAK

## Eguenean egingo dute Kulturaten aurtengo sari banaketa ekitaldia, 19:00etan

Gainera, AEDk euskal kantu tailerrean parte hartzeko deia egin du; apirilaren 22an eta 29an izango dira, San Andresko alkatetzan

**J.B.** > ARRASATE

AED elkarteak antolatutako XXII. Arrasate Literatur lehiaketako sari banaketa eguenean izango da Kulturaten, 19:00etan hasita. Sari banaketa ekitaldiaren ostean luncha egingo dute.

**PARTE HARTZE ALTUA AURTEN**

Guztira 127 literatur lan jaso ditu aurten AEDk, lau lehiaketetan banatuta: ipuina, poesia, bertsopaperak eta komikia. Parte hartzeak gora egin du aurten, iaz baino 20 obra gehiago jaso dituzteeta. AED elkarteko kultura taldekoek jakinarazi dutenez, "igoera erlatibizatu beharra dago, eta lan kopuruak datorren urtean behera egin dezake erraz". Izan ere, lehiaketetako parte-hartzeak ikastetxeetako lanetik edaten du neurri handi batean; eta beraz, nahikoa izaten da irakasle batek gelan gai bat lantzea jasotako lanen kopuruak gorakada nabarmena izan dezan.

**EUSKAL KANTUEN TAILERRA**

Literatur lehiaketen sari banaketaz gain, hilaren 22an eta 29an kantu tailerra egingo dute San Andres auzoko alkatetzan. Tailerra abestea gustuko dutenei, euskal abestiak ikasi gura dutenei eta abestiak erdizka jakin eta abesti osoa ikasi gura dutenei dago zuzenduta. Tailerrak 18:00etatik 20:00etara izango dira.

**EMAKUME TXOKOA** > UDABERRIKO PROGRAMA

## Emakumeei zuzendutako egitaraua aurkeztu dute

Eskaintza zabala prestatu dute maiatza eta ekainerako: zinema, antzerkia, erakusketak...

**J.B.** > ARRASATE

Emakume Txokoak aurkeztu du udaberriko programa. Maiatza eta ekainerako egitarau oparoa prestatu dute; besteak beste, zinema, antzerkia, erakusketa bat, ikastaro eta tailerrak egingo dituzte-eta.

**II. LES-GAY-TRANS ZINEMA ZIKLOA**

Udaberriko Emakume Txokoaren programako eskaintza interesgarrienetakoa da II- Lesgay-trans zine forum zikloa. Homofobiaren aurkako jaialdi labur horretan bi film ikusi ahalko dira: Faith Akin zuzendariaren *Al otro lado* (Alemania-Turkia 2008) filma –maiatzaren 21ean–, eta Lovinsa Kavuma zinemagilearen *Rape for who I am* dokumentala (Hegoafrika, 2008) –maiatzaren 28an: Bi filmak Amaia antzokian emango dituzte, 20:30ean. Filmen aurkezpena Aldarte –gay, lesbianen eta transexualen arreta zentroa– elkarteko kide batek zuzenduko du.

**AMAIERARAKO ANTZERKIA**

Ekainean, bestalde, *Edabe feministak. Eusteko konjuroak* izeneko erakusketa jarriko dute Emakume Txokoaren egoitzan. Emakume Internazionalistak taldearen erakusketa da, hilaren 1etik 11ra zabalik egongo dena.

Azkenik, ikasturteari amaiera emateko *Eta karmele?* antzezlana eramango dute Kulturatera. Ekainaren 4an izango da, 19:00etan. Eta noski, ohiko ikastaro eta tailerrak ez dira falta; argibide gehiagorako Emakume Txokora jo.

> EKIN EMAKUMEAK

### Bihar hasiko dira eskulan tailerrak, ekainaren 16ra arte

Bihar hasiko dira Ekin elkarteak antolatu dituen eskulan tailerrak, eta ekainaren 16an amaituko dira. Martitzenetan izango dira, honako bi ordutegietan: 15:30etik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Prezioa: bazkideek 36 euro eta gainontzekoek, berriz, 38 euro.

> OSASUNA

### Bihotzeko patologiak hizpide Eroskik antolatu jardunaldian

Eroski kooperatibaren batzorde kontsumeristak antolatuta, *Zer datorkigun bihotzeko patologien tratamenduan* izeneko jardunaldia izango da gaur Kulturaten, 16:30ean.

Kontsumitzailea informatzea da jardunaldiaren helburua eta Gipuzkoako Poliklinikako kardiologian espezialista den Garikoitz Lasak egingo du berba.

**AEROBIK** > ARRASATEARRAK ESPAINIAKO TXAPELKETAN

# Arrasate Dragoi gimnasia taldeko neskak maiatzaren 16an lehiatuko dira, Granadan

Euskadiko txapelketan hirugarren egin ostean heldu dira Espainiako txapelketara

Maiatzaren 7an izango dute proba; aurten lehenengoz lehiatu dira Aerobik txapelketan

**JOKIN BEREZIARTUA**> ARRASATE
Pozik egon daitezke Arrasate Dragoi gimnasia taldeko Saioa Arriola, Leire Gonzalez, Leire Poyato, Jone Goikolea, Naiara Zabarte eta Janire Morales. Urtetan zehar gimnasia erritmikoa egiten ibili ondoren, 2008-2009 denboraldian Euskadiko Aerobik txapelketan parte hartzera animatu eta sekulako emaitza lortu dute-eta.

**AMESTUTAKO DEBUTA**
Lehenengoz eman dute izena Aerobik txapelketan, eta Espainiako txapelketarako txartela eskuratu dute. Maiatzaren 15ean Arrasate utzi eta Granadara abiatuko da boskotea, eta egun bat beranduago izango dute proba Espainiako talde onenen artean. Domekan, azkenik, etxerako bidea hartuko dute. Hots, aste bukaera bakarreko joan etorria.


Maiatzaren 16an lehiatuko da Granadan boskote arrasatearra. ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEA

**GIMNASIATIK AEROBIKERA**
Boskote arrasatearra oso txikitatik aritu da gimnasia erritmikoan. Hala ere, kirol horretan oso gutxi dira 18 urtetik aurrera gimnasia erritmikoa egiten jarraitzen dutenak. Hala, gimnasia utzi eta gero, aerobika egiteko aukera suertatu zitzaien. Edurne Elkoro taldearen entrenatzaileak jakinarazi duenez, "jarduera fisiko handiko kirola da aerobika, baina ez ditu gimnasia erritmikoak eskatzen dituen entrenamendu orduak eskatzen".

Estatu mailako probari dagokionez, Euskadiko txapelketako koreografia bera egingo dutela jakinarazi du Elkorok. Bi minutuko saioak dira; kalifikazio onena egiten duenak irabaziko du.

**EZ DA ERRAZA IZANGO**
Elkorok badaki oso zaila izango dela txapelketako lehen postuetan amaitzea: "Estatu mailako talde onenak izango dira Granadan eta aerobika ezezaguna da hemen Espainiako hainbat lekurekin konparatuz". Hala ere, arrasatearren helburu nagusia Espainiako Aerobik txapelketa ezagutzea da.

GIMNASIA ERRITMIKOA

## Maiatzean ospatuko dituzte maila guztietako finalak

Maiatza hilabete ezin erabakigarriagoa izango da Arrasate Dragoi gimnasia taldearentzat. Izan ere, eskola arteko txapelketako bigarren fasea gainditu ondoren, hilabete horretan izango dituzte maila guztietako Gipuzkoako txapelketako finalak.

Maiatza erdialdean izango dituzte Gipuzkoa mailako probak –maiatzaren 16 eta 23ko aste bukaeretan– eta lehen hiru postuetan sartzen diren taldeak Euskadiko txapelketan hartuko dute parte–maiatza amaiera eta ekain hasieran egingo dira–. Heldu da, hortaz, denboraldiko lan guztia neurtzeko unea.

**LITERATURA** > LIBURUAREN EGUNA

# Egitarau oparoa izango da aste osoan

Asteon ospatuko dira Liburuaren Egunaren programako ekitaldi gehienak

'Biblioteca en Guerra' erakusketaren inguruko hitzaldiak, ipuin kontalariak eta literatura solasaldiak izango dira, besteak beste

**J.B.** > ARRASATE
Heldu da Liburuaren Eguneko egitaraua puntu gorenera. Logikoa da, eguen honetan da-eta Liburuaren egun ofiziala. Bada, asteon hitzaldi, ipuin kontalari eta literatura solasaldietaz gozatu ahalko da Kulturaten eta Santa Marina auzoko bibliotekan.

**SOLASALDI, HITZALDI...**
Bihar, martitzena, Juanjo Olasagarre idazle nafarraren *Las maletas imposibles* obra hizpide izango duen solasaldia izango da Kulturaten, 18:30etatik 20:30etara. Saio irekiak izango dira, liburua irakurri ostean, joatea gura duen edozeinentzat.

Bestalde, *Biblioteca en Guerra* erakusketaren –hilaren 30era arte dago zabalik– harira hitzaldi bi izango dira. Eguenean, hilak, 23, *Intelektualak eta antifaxismoa Espainiako gerra zibilean* hitzaldia entzun ahalko da Kulturaten, Euskaltzaindiaren bibliotekako zuzendari Pruden Gartziaren eskutik. Gainera datorren eguaztenean, hilak 29, azken urteetan zeresana ematen dabilen biblioteketako kanona jorratuko duen hitzaldia izango da: *Pagar por leer en la biblioteca pública,* hain zuzen. Blanca Calvo Guadalajarako biblioteka publikoko zuzendaria izango da hizlaria.


Egubakoitzean Theresa Amoon kontalaria izango da Kulturaten (19:00). GOIENKARIA

**...ETA IPUIN KONTALARIAK**
Eguenean Alaitz Muro eta Agurtzane Villateren eskutik, *Otsoen kontuak* haurrendako ipuin kontaketak izango dira Santa Marinako liburutegian (18:00). Azkenik, munduko kontu kontalariak izango ditugu Kulturaten: egubakoitzean, 11:00etan eta 19:00etan.

> MUSIKA

## 'Piccolo y Saxo', Logroñoko musika eskola, Amaian

*Piccolo y Saxo* Logroñoko musika eskolako Bandaluse Big Band eta Orquesta Piccolo bandak kontzertua eskainiko dute egubakoitzean Amaia antzokian (19:00).

Eurekin batera Arrasate Musikaleko banda txikiak hartuko du parte emanaldian.

> ZINEMA

## Emakumeen IV. Zine zikloaren bigarren filma, eguenean

Emakumeek egindako zinema oinarri duen Emakumeen IV. Zine zikloaren bigarren filma eguenean, hilak 23, izango da ikusgai Amaia antzokian (20:30). Proposamen interesgarri bezain gogorra aukeratu dute: Belen Macias zinemagile kataluniarrak zuzendutako *El patio de mi carcel* film ezaguna, hain zuzen.

**AUZOAK** > ZABALOTEGI

# Zabalotegiko lorategiak konpondu egingo dituzte

Erabat berrituko dute berdeguneotako landaretza, eta, lorategien kokalekuaren arabera, trataera bat edo beste izango dute



Etxeen ondoko lorategietan jarriko dituzte lonicera nitidak, agapanto afrikarrak, kameliak eta hurritzak. JOSETXO ARANTZABAL

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Zabalotegiko lorategiak konpondu egingo ditu Udalak. Kimu bat enpresa espezialduak egin du dagoeneko proiektua. Aurrekontua 12.000 euro ingurukoa da.

**GAUR EGUNGO EGOERA**
Zabalotegiko berdeguneak 50. hamarkadan eraikitako etxeen oinean zabaldutako eremuak dira eta hiru zatitan bereiz daitezke. Baratzetara ematen duen pendizean arbustu arruntak eta landaketa nahasiak daude, batik bat, eta hori guztia belar eremuarekin nahastua dago. Etxe artean geratzen diren parterre eta plazatxoei dagokienez, zuhaitzak –platanondo eta pisardiak– daude, eta horrekin batera landare landaketa nahastua dago. Azkenik, mendi aldera ematen duen magalean belardia da nagusi.

**PROPOSAMENA**
Berdeguneok txukuntzeko orduan Kimu bat enpresak proposatzen du zatietako bakoitzak trataera bat izatea, "funtzio eta baldintzapen ezberdinak dituztelako", proiektuan jaso dutenez.

Baratzeetara ematen duen pendizeari dagokionez, proposatzen dute arantza eta gorostia landatzea. Hala, arantzaren loraldi zuri eta negu biluziari, gorostiaren urte osoko berde eta neguko fruitu gorriak uztartuko zaizkio.

Etxeen arteko parterretan landatuko dira, batez ere, lonicera nitida eta agapanto afrikar estalkorrak. Hala, lehenaren argitasun eta fintasuna bigarrenaren freskura eta uda lorez langunduta joango da. Horrekin batera, landatuko dira kameliak –atarien arteko eremuetan– eta hurritzak.

Mendialdera ematen duen magalari dagokionez, huntza landatuko dute.

Lanok aurten egin nahi ditu Udalak, baina ez guztiak. Mendialdera ematen duen magaleko huntz landaketa aurreragoko lagako dutela aurreratu dute Udal iturriek.

## Botatzen hasi dira Zubiaurre kaleko 3, 5 eta 7. zenbakiak

Aste Santu aurretik hasi ziren botatzen Zubiaurre kaleko 3, 5 eta 7. zenbakiak. Eraispen lanak bukatu eta gero, berriak egingo dituzte zaharrek lagatako orubean. Eraispen lanek errepidean eragingo dute eta horregatik txandakatzeko semaforoak jarri dituzte. Horrekin batera, udaltzainak ere han izango dira zirkulazio arazoak ekiditeko asmoz.



JOSETXO ARANTZABAL

**ZERBITZUAK** > UDAL LIBURUTEGIA

## Ipuin kontalaria eta literatura lehiaketa Liburuaren Egunean

Ekitaldiok batik bat gaztetxoendako dira; horrez gain, liburutegia San Martin plazara aterako dute

**M.B.** > BERGARA
Apirilaren 23an, eguena, Liburuaren Eguna da eta azkeneko urteetan egin duten bezala, Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu egun horren bueltan.

Gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituzte, batik bat. Alde batetik Lupe Lekuona ipuin kontalariak lehen mailako umeei ipuinak kontatuko dizkie. Herriko ikastetxeekin harremanetan jarri dira horretarako, eskola ordutan izango dira-eta emanaldiak. Bestetik, seigarren mailako ikasleen artean lehiaketa egin dute. Gazte literaturaren gaineko galdetegi baten oinarritutako lehiaketa izan da. Hala, erantzun egoki gehien egiten dituenak saria jasoko du eguenean.

Horrekin batera, liburutegia San Martin plazara aterako dute goiz eta arratsalde.

**JAIAK**

## San Prudentzio jaiak, Elorregin

**M.B.** > BERGARA
Elorregi auzoan San Prudentzio jaiak ospatuko dituzte. Atzo, apirilak 19, txokolatea txurroekin banatu zieten auzoko emakumeei, eta horrekin hasi zituzten jaiak.

**AMURIZA ETA PEÑAGARIKANO**
Hilaren 24an, egubakoitza, makala jasoko dute 18:00etan eta hilaren 25ean, auzokoek bazkaria egingo dute 14:00etan. Gainera, eta ohiturari jarraituz, Peñagarikano eta Amuriza bertsolariak ere han izango dira. 22:00etan, berriz, erromeria egongo da.

Hilaren 26an, domeka, meza nagusia egongo da 10:30ean Alai Taldeak abestuta eta gero, Moiazpi dantza taldeak saioa egingo du. Dantzarien emanaldia bukatu eta gero pilota partidua egongo da eta salda eta txorizoa hurbiltzen direnendako. Jaiei amaiera emango diete hilaren 28an, San Prudentzio eguna, 19:00etan egongo den mezarekin.

**HIRIGINTZA** > BERRITZE LANAK

# San Pedro kalea gaurtik berriz zabalik, konponketak egin ondoren

Zementu falta izan da galtzada-harriak askatzearen eta mugitzearen arrazoia; euriteek zementoa garbitu zutela diote teknikariek



San Pedro kalean aske geratu ziren galtzada-harriak dagokien tokian ipini dituzte egoki.. JOSETXO ARANTZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Martxoaren 1ean zabaldu zuten ibilgailuendako San Pedro kalea galtzada-harriak ipini ostean. Martxoa eta apirila bitartean, ordea, hainbat harri, uste baino gehiago, bere lekutik irten ziren eta kalean konponketak egin ostean, gaur, astelehena, apirilak 20, zen zabaltzekoa berriz San Pedro kalea.

"Orain egin diren azken lanak oso ondo joan dira. Astearen amaiera aldera, hormigoiaren azaleko gogortasuna neurtzeko erabiltzen den esklerometroaren emaitzen datuak berdinak badira, irekitzeko asmoa dago", esan zigun joan zen astean barrena udaletxeko bulego teknikoko Joseba Aizpuruak.

**HARRIAK, ASKATUTA**

Teknikariak esan digunez, zementu falta izan da San Pedro kaleko galtzada harriak askatzearen arrazoia: "Galtzada-harriaren morteroaren zementu falta izan da harrien mugimenduaren eta lekutik irtetearen arrazoia. Obran hartu genituen lagin guztien dosifikazioak onak izan ziren eta lanekin aurrera jarraitu genuen, baina gero egin zituen euriteek zementua garbitu egin zuten", esan digu Joseba Aizpurua teknikariak.

Enpresa eraikitzaileak, Egaralurrek, bere gain hartu du galtzada-harriak mugitu ostean egin dituzten azken konponketen ardura eta kostua.

**ARIZNOA KALEAN LANAK**

San Pedro kaleko lanak amaituta laster hastekoak dira Ariznoa kaleko obrekin, plazara arte falta den zatiarekin, hain zuzen ere.

Lehen, kaleko zati bat egin zuten, eta orain Usoa eta Eusebio tabernetako terrazatik San Martin plazara arteko obrekin jarraituko dute. Aurreikuspenen arabera, maiatzaren 4an hasiko dira obrak.

Ariznoa kalea iaz amaitu bazen ere, hirugarren fasea egin gabe gelditu zenez, orain irisgarritasuna hobetu asmoz egingo dituzte lanak.



Goiko estazioaren barruan egin dituzte konponketa lanak. I.A.

**MUSIKA** > ENTSEGU LOKALA

## Goiko Estazioan entseguak egiteko eskaera epea zabalik

Aurreikuspenen arabera lanak amaituta egongo dira hilaren bukaerarako

**I.A.** > BERGARA

Goiko Estazioko berrikuntza lanak hilaren amaierarako bukatzeko asmoa dago. Zortzi entsegu lokal egongo dira eta han entseatu nahi duten musika taldeek udaletxeko erregistroan egin behar dute eskaera taldekideen datuak eta taldearen izena emanez.

**ELKARTEAN IZENA EMAN**

Lanek iraun bitartean, hainbat musika taldek Jam aretoan entseatu dute. Taldeok, Udalarekin harremana izateko, Bergarako Goiko Rock Musika Elkartea osatu dute, eta lokal berrietan entseatzeko ere izena eman beharko dute.

Entsegu lokalen erabilera arautzeko, Udala eta Goiko Rock Musika Taldearen artean hitzarmena sinatu da eta partaideek baldintza guztiak bete beharko dituzte. Informazio gehiago honako zenbakian eska daiteke: 943 77 91 60 (Edurne).

**AZPIEGITURAK** > KIROL GUNEA

## Agorrosinen garbiketa sakona egin dute Pazko astean

Igerilekuetan eta aldageletan gesinfekzio lanak egiteaz gain, legionela tratamenduak eta mantentze lanak ere egin dituzte



Langileak bainuetxean konponketa lanak egiten. I.A.

**I.A.** > BERGARA

Pazkoa astea aprobetxatu dute Agorrosin Ekintza Gunean garbiketa lan sakona egiteko. Batetik desinfekzio lanak egin dituzte eta mantentze lanak bestetik.

Udaletxekoak arduratu dira zailtasun tekniko handiagoa duten lanetaz: desinfekzioaz, legionela tratamenduez eta konponketa zehatzetaz; eta kanpotik ekarri dituzte enpresa berezituak beste lanetarako: Alfusekoak ur zikinen hoditeria garbitzeko, Galantekoak aldageletako eta igerilekuko lurzoruan desinfekzio berezia egiteko...

"Urtean bi aldiz egiten ditugu lanok. Batetik, desinfektatzaile gogorra, azidoa, erabiliz ikusten den eta ikusten ez den zikina kentzen saiatzen gara. Bestalde, legionela tratamenduan bi protokolo erabiltzen dira: dutxetako txoke termikoa; dutxa guztietara ura 60 gradutan 15 minututan barrena bidaliz legionelako bakteria hiltzen duena. Bainuetxean, ordea, PVC eta plastikozko elementuak daudenez, ur berogiak kiskali egingo lituzke, hortaz, tratamendu kimikoa egiten da bromoarekin", azaldu digu kirol teknikariak.

**IGERILEKUETAKO URA BEROTU**

Garbiketaren ostean, eguaztenean hasi ziren igerilekuak betetzen eta gaur, astelehena, ziren zabaltzekoak. "Lan karga handiena lehenengo bi egunetan izaten da; gero zain egon behar da igerilekuak betetzeko, ura berotzeko eta kloratzeko. Denbora gehien horretan ematen da, gainera, eguraldi txarrarengatik ura oso hotza dator", esan digu kirol teknikari Unai Asurmendik.

**KULTURA** > LIBURUTEGIA

# Bildumatik erretiratutako liburuak oparituko dituzte

Ekimen berezia egingo dute eguenean liburutegian, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko

Guztira, 30en bat liburu oparituko dituzte liburutegiko bazkideen artean

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Eguenean, hilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute. Horren harira, ekitaldi berezia egingo dute liburutegian: alegia, bildumatik erretiratu dituzten liburuak oparituko dituzte eguenean. "Guztira, 30en bat liburu jarriko ditugu bazkideen eskura", esan digu liburutegiko arduradunak. Horixe daeta liburuak jaso ahal izateko bete beharreko baldintza bakarra: bazkide izatea. Liburutegia zabalik egongo da 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

Bazkideen artean liburuak oparitzearena urtero egiten duten ekimena da: "Egia esan, bazkideek harrera ona egiten diete halako ekimenei". Hasiera batean, liburuak eguenean oparituko dituzte, eta soberan geratzen direnak egubakoitzean. "Halakoetan azkar bukatzen dira. Jakina, lehen orduan etortzen direnek gustukoen duten liburua hartzeko aukera izango dute. Eguenean oparitu barik geratzen diren liburuak egubakoitzean banatuko ditugu, baina halakoetan egun bakar batean banatzen ditugu guztiak", diote arduradunek.

**BESTE EKITALDI BATZUK**

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko beste hainbat ekitaldi egingo dituzte datozen egunetan liburutegian.

Alde batetik, etzi, eguaztena, Joxean Agirre idazlearekin solasaldia egingo dute kultura etxeko aretoan 19:30ean. Azpeitiako idazleak idatzi duen azken eleberria aurkeztuko du: *La lutte finale*. Agirrek lau pertsonaien hartu-emanak kontatzen ditu liburu berrian: bi gizon (narratzailea eta Garibaldi deitzen dutena); eta bi emakume, Nadia eta Natalie. Istorioa lehenengo pertsonan kontatua dago, narratzailea protagonistetako bat da-eta.

Beste alde batetik, hilaren 28an, helduendako ipuin kontaketa saioa egingo du Jose Mari Karrerek liburutegian, 19:30ean. Hain zuzen ere, Euskal Herriko zein munduko kultura ezberdinetako ipuinak kontatuko ditu liburutegian.




MIHILUZE

## Miren Leibar eta Irati Barrena oñatiarrak, 'Mihiluze' lehiaketan

Miren Leibar eta Irati Barrena oñatiarrek (goiko argazkian, erdiko bi neskak) aurreko astean parte hartu zuten ETBko *Mihiluze* saioan. Lehen kanporaketak gainditu ondoren, finalerako txartela lortu zuten. Egubakoitzean jokatu zuten finala eta sari potoloa irabazi ez zuten arren, kamisetarekin, PC jokoekin eta mp4arekin itzuli ziren etxera. Eurekin lehiatu ziren finalean, Igorreko (Bizkaia) eta Arantzazuko (Bizkaia) Iraide Ibarrondo eta Nerea Olivares, eta Erromoko (Bizkaia) Garazi eta Olaia Lekunberri ahizpak. Azken horiek izan ziren txapeldun *Zer da zer* proba asmatu ondoren. Eurodisneyrako bidaia eskuratu zuten.

**KIROLA** > MENDI IRTEERA

# GR-11ko lehen bi etapak egiteko irteera antolatu du Aloña Mendik

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak bi eguneko irteera egingo du maiatzaren 1etik 2ra bitartean

**M.B.** > OÑATI

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak aste bukaerako irteera egingo du maiatzaren 1ean eta 2an. Hain zuzen ere, GR-11ko lehen bi etapak egiteko asmotan dabiltza.

Izenemate epea bihar zabalduko dute. Interesatuek Aloña tabernan eman dezakete izena hilaren 27ra arte. Autobusa parrokia aurrekaldetik irtengo da, 07:00etan. Oraingoz 20 lagunendako tokia hartu dute lo egiteko Oronozen. Lagun gehiagok izena emango balute, lo egiteko tokia baieztatu beharko lukete.

Maiatzaren 1ean, Hondarribi eta Bera arteko ibilbidea egingo dute; eta maiatzaren 2an, Bera eta Elizondo artekoa. Biak ala biak, 30 kilometroko ibilaldiak dira, baina antolatzaileek diote ez direla gogorrak.

**BI IRTEERA**

Lehen etapa Higerreko itsasargitik hasiko dute. Irunera arteko zortzi kilometroak lauak dira. Autobide azpitik igarota, Erlaitz lepora igo eta San Anton urtegira jaitsiko dira. Urtegian bazkalduko dute. Lehen ibilbidea Beran bukatuko dute, eta bertan pasako dute gaua. Bigarren etapa Beran hasi eta Elizondon bukatuko dute.

GR-11ko hirugarren eta laugarren etapak ekainean egingo dituzte Aloñakoek.

## oharrak

DEIALDIA

**> Odol ateratzea egingo dute egubakoitzean**

Oñatiko odol emaileen elkarteak odol ateratze berria egingo du ikastolan barikuan, 18:00etatik 20:00etara. Hurrengo ateratzea maiatzaren 8an egingo dute.

DEIALDIA

**> Aloña Mendiko nesken futbol taldean ibilitakoek bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 23an egingo dute bazkaria, baina aurretik partidua jokatuko dute Azkoagainen. Bazkarira joan gura duenak 30 euro sartu beharko ditu 21010057530126831502 zenbakian.

INFORMATIKA

**> Ikastaroak KZgunean**

Gaurtik askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean, 16:30etik 18:30era. Interesatuek bi aukera dituzte ikastaroen gaineko informazioa eskatzeko edo izena emateko: 943 71 83 20 telefonora dei dezakete, edota *www.kzgunea.net* helbidean begira dezakete.

INFORMATIKA

**> Ateei buruzko argazki erakusketa lau tabernetan**

Ilunpetan argazki taldeak ateei buruzko erakusketa antolatu du herriko lau tabernatan; hain zuzen ere, Boga, Arrano, Guria eta Aker tabernatan. Oñatiko eta beste toki batzuetako ateei buruzko 20 argazki bildu dituzte, batzuk koloretan eta beste batzuk txuri beltzean. Erakusketa hilaren 30era arte egongo da ikusgai.

ZINEMA

**> 'Escondidos en Brujas' eguenean, zineklubean**

Martin McDonaghen azken pelikula emango dute eguenean, 20:00etan.



Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa hondakinen transferentzia eta garraioaz arduratuko da uztailean. M.B.

**HONDAKINAK** > UDALA

# Uztailetik aurrera %20,1 igoko da zaborraren tasa

Familia gehienek urteko lehenengo seihilekoan 39,64 euro ordaindu beharko dituzte zaborragatik; eta bigarrenean, berriz, 47,60 euro

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Apirilaren 7an egindako osoko bilkuran hiri hondakin solidoak jasotzeko, garraiatzeko eta birrintzeko, Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen zerbitzuaren gaineko tasa igotzearen alde azaldu zen udalbatza. Uztailetik aurrera, zaborraren tasa %20,1 igotzea adostu zuten, hain zuzen. Udal Gobernua ordezkatzen Pedro Lasagabaster alkateak eta Dorleta Lezetak, EAJko Aitor Urrutia eta Begoña Erañak zinegotziek eta EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok aldaketa horren alde bozkatu zuten eta PSEko zinegotzi Iñaki Pierrugues, berriz, abstenitu egin zen.

**LEHENENGO SEIHILEKOAN %10**

2009ko lehenengo seihilekoan Udalak %10 igo zuen esandako tasa. Hortaz, Eskoriatzako familia gehienak iaz 36,04 euro ordaintzetik, 39,64 euroko tasa ordainduko dute datozen hilabeteotan. Horren harira, esan beharra dago, udalak dagoeneko lehenengo seihileko faktura ordaintzeko epea zabaldu duela gaur, apirilak 20; ekainaren 5a arte luzatuko da hori. Udalak onartutako %20,1eko igoera horrekin, herriko 1.500 familia baino gehiagok, bigarren seihilekoan, 47,60 euroko fakturari egin beharko diote aurre.

Igoera horrek badu arrazoi bat. Jakina denez, uztailetik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartu du bere gain orain arte Mankomunitateak kudeatzen duen zerbitzuaren zati bat. Zehazki, hondakinen transferentzia eta zabortegirainoko garraioa Mankomunitateak ordaindu beharko dio Partzuergoari zerbitzu horregatik.

**ARETXABALETA** > KULTURA

# 'Atxabaltan be Leidu' ekimena abian bigarrenez

Bihar esku-orriak banatuko dituzte eta liburuen gomendioak hilaren 29ra arte aurkez daitezke

**M.B.** > ARETXABALETA

Iazko moduan, aurten ere, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, *Atxabaltan be Leidu* ekimena antolatu dute elkarlanean Leintz Udal euskaltegiak eta Loramendi Euskara Elkarteak.

Bihar, martitzena, herriko hainbat txokotan horren gaineko esku-orria jarriko dute, aretxabaletarrek har ditzaten. Horretan, zenbait herritarren ekarpenak daude, eurek gustuko duten euskarazko liburuen proposamena egiten. Atzean, berriz, Bergarako Elkar liburu dendak azken urtean gehien saldu diren euskarazko liburuen zerrenda ikus daiteke.

**LIBURU SALDUENAK**

Guztira, hamaika izenburu eta horien egileen zerrenda dago horretan: John Boyneren *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa*; Jon Arretxeren *Oinez Debagoiena*; Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*; Toti Martinez de Lezearen *Nur*; Joseba Sarrionandiaren *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*; Joxerra Gartziaren *Jendaurrean hizlari*; Juan Izuzkizaren *Paranoiaren hozberoa*; Joseba Sarrionandiaren *Gau ilunekoak*; Jon Arretxeren *Fatum*; Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana*; eta Joan Mari Irigoienen *Bestea da mundua*, hain zuzen.

**LEHIAKETA**

Horretaz gain, aurreko urtean bezala, lehiaketa gertatu dute Euskaltegikoek eta Loramendikoek. Bihar banatuko den eskuorrian bertan azaltzen den laukian herritarrek gustuko duten liburu baten gomendioa egin dezakete.

Gomendioa idatzitakoan, laukia moztu eta Loramendin edo Udal Euskaltegian aurkeztu beharko da. Nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute. Apirilaren 29ra arte izango dute gomendioak aurkezteko epea. Aurkezten diren guztien artean, Bergarako Elkar liburu dendan materiala erosteko 40 euroko erosketa zozketatuko da. Iaz Julia Cabezasek irabazi zuen esandako bonoa.

Loramendikoek eta Udal Euskaltegikoek horretan parte hartzeko gonbita egin dute.



Umeak jolasean ludotekan. GOIENKARIA

## Eskoriatzako oharrak

KIROLA

**> Saskibaloiaren gaineko hitzaldi teknikoa dago eguaztenean**

Eskoriatza Kirol Elkarteak hitzaldi teknikoa antolatu du saskibaloiaren gainean eguaztenean, 20:00etan, kiroldegian. Bruesa GBC-ko bigarren entrenatzaile Arturo Alvarezek emango du. Bailarako entrenatzaileei zuzenduta dago. Interesa dutenek *www.eskoriatzake.com* helbidearekin jarri behar dira kontaktuan.

HEZKUNTZA

**> Seme-alabei eskola lanekin zelan lagundu azaltzeko berbaldia**

Egun berean, hilak 22, *Nola lagundu gure seme-alabei eskolako lanekin?* lelopean, berbaldia egongo da Ibarraundi museoan, 18:00etan. Luis Ezeiza ikastetxeak antolatu duen berbaldia gazteleraz izango da.

OSASUNA

**> Azalaren zainketen gaineko hitzaldia dago etzi, kultura etxean**

Hirugarren hitzaldi bat ere egongo da etzi, Amuska emakumeen elkartearen eskutik. Kultura etxean izango da hori. Mari Sol Rebollok azalaren oinarrizko zainketen gainean egingo du berba.

UMEAK

**> Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria izango da eguenean herrian**

Eskoriatzako Udalak ipuin kontaketa antolatu du eguenean, apirilak 23, udal liburutegian. Estitxu Mentaberri izango da haurrei ipuinak kontatzeaz arduratuko dena. Haur emanaldi horren hitzordua 19:00etan jarrita dago.

ONA TXARTELA

**> ONA txartela apirilean eskuratzeko egunak eta ordutegia**

Hilero bezala, apirilean zehar ere aukera egongo da erabilera anitzeko ONA txartel berria eskuratzeko udal liburutegian honako egun eta ordutegian: Apirilaren 22an eta 23an, 10:30etik 13:00etara; eta apirilaren 29an eta 30ean, 10:00etatik 13:00etara egongo da txartel hori egiteko aukera.

> ARETXABALETA

### Parkinsonari buruzko berbaldia dago hilaren 28an Basotxon

Aretxabaletako Basotxo erretiratuen elkarteak hitzaldia antolatu du apirilaren 28rako. Parkinson gaixotasunarekin bizitzen ikasteaz jardungo dute erretiratuen elkarteko egoitzan egingo den berbaldi horretan. Gazteleraz izango da eta 17:00etan emango diote hasiera.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

**ELGETA** > GERRA ZIBILA

# Intxorta mendiaren magalean ibilbide tematikoa egiteko proiektua aurkeztu dute

Proiektuaren helburua da Gerra Zibilak Euskal Herrian izan duen gune garrantzitsuenetariko bat, Intxorta, berreskuratzea eta han gertatutakoa ezagutzera ematea



Atzo, domeka, Intxortako ibilaldia egin zuten hainbat debagoiendarrek. I. AGIRREAZALDEGI

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Gerra Zibilak Euskal Herrian izan duen gune garrantzitsuenetariko bat da Intxorta ingurua. Gune hori berreskuratu eta han gertatutakoa ezagutzera emateko *Gerra Zibila Euskal Herrian: Ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* proiektua aurkeztu dute Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak.

Ibilbidearen harrera gunea Espaloian ipiniko dute eta maketa, panelak eta proiekzioa izango dira han eta Asentzion aparkalekua egokituko dute. Lau edo bost kilometroko ibilbidea izango da, ordubetean egiteko modukoa eta zati bat ezinduendako egokituko dute. Ibilbidean informazio panelak ipiniko dituzte. "Asmoa da berreskuratzea antzinako gauzak. Lubakiak, lekurik esanguratsuenak eta armak nola zeuden erakustea", dio Intxorta 1937 Elkarteko presidente Jesus Gutierrezek.

Proiekturen aurrekontua 383.122 eurokoa da eta Udala lanean dihardu Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin proiektuari bultzada emateko.

**TURISMORAKO ETA IKASTEKO**

Historikoki ez ezik turismoarendako ere proiektu garrantzitsua dela esan digu Edurne Alberdi zinegotziak: "Gaur egun denoi gustatzen zaigu ibiltzea, eta Elgetan aprobetxatuz zer erakutsia badaukagula, zeresan handia izan dezake herriarendako eta turismoarendako"

Oxel Erostarbe alkateak ere proiektutik zer ikasia badugula azpimarratu zuen: "Sufrimenduaz hainbeste berba egiten den honetan faxistek sortutako sufrimendua jasan zutenei errekonozimendua egiteko ordua da. Proiektu honekin pasa zenetik ikasi eta berriz pasa ez dadin bide bat jorratuko da".

Barikuan, apirilaren 24an, Elgeta frankisten esku erori zeneko urteurrena beteko denez, atzo, domekan, ibilaldia egin zuten eta datozen egunetarako ekitaldi gehiago antolatu dituzte.

### Urteurreneko ekitaldiak

**Apirilak 22, eguaztena**
19:30 *Gerra Zibila Euskal Herrian: Ibilbide tematikoa Intxortako magalean* proiektuaren aurkezpena Espaloia Kafe Antzokian
21:30 La lengua de las mariposas filma Espaloian.

**Apirilak 24, barikua**
19:00 Lore eskaintza Intxortako Atean eta Salbadorreko monolitoan.

**ARAMAIO**

# Bake epailea hautatzeko prozesua zabalik da

Udal bulegoetan eman behar da izena, apirilaren 27a baino lehen

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko bake epailea eta bere ordezkoa izendatu zirenetik lau urte beteko dira laster. Hori horrela, beharrezkoa da berriro ere hautaketa prozesua egitea. Interesa dutenek apirilaren 27ra arte izango dute udal bulegoetan izena emateko aukera.

Bake epailea izateko ez da derrigorrezkoa zuzenbidean lizentziatua egotea. Nahikoa da karrera judizialean sartzeko Botere Judizialaren Lege Organikoan aipatzen diren baldintzak betetzea. Ezinbestekoa da Espainako nazionalitatea edukitzea eta adinez nagusia izatea. Hautagaiek fisikoki eta psikikoki epaile lanak betetzeko gai izan behar dute eta erretiratua ere izan daitezke. Horretaz gain, udal bulegoetara epaile lanak egitera joateko libre egon behar dira eta autoa izan.

Karguak lau urteko iraupena dauka eta ordain sariari dagokionez, berriz, lau hilabetean behin jasotzen da. 2008an, esaterako, 1.103 euro jaso zituen urte osoan bake epaileak.

**LEINTZ GATZAGA** > AUTOBIDEA

# Lasaitasun izugarria ekarri du herrira autobidea zabaltzeak

Zarata gutxiago, ibilgailuen joan-etorri txikiagoa eta GI-3681 errepidera ateratzeko orduan segurtasun handiagoa dago

**O. ELORZA/M. ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Bi aste pasatu dira Eskoriatza eta Luku (Araba) arteko autobide zatia zabaldu zutenetik eta Gatzagan aldaketa handia igarri dute. Lehen goizeko seiak inguruan hasi eta eguna bukatu arte etengabea zen autoen joan-etorria GI-3681 errepidean; orain, ostera, izugarri jaitsi da zirkulazioa eta lasaitasuna da nagusi herrian.

Lasaitasun hori asko eskertu dute herritarrek Goiena Telebistari adierazitako moduan: zarata gutxiago, ibilgailuen joan-etorri txikiagoa, eta batez ere, herritik bertatik eta baserri bideetatik errepidera ateratzeko orduan segurtasun handiagoa.

Turismoarengan, ostera, ez duela kalte handirik eragingo uste dute ostalariek. Euren esanetan Gatzagara doan jendeak badaki nora doan eta berdin dio betiko errepide zaharra erabiltzea. Bestalde, udan Landara jende asko joaten da Debagoienetik, eta horiek herritik pasatu behar dute. Gatz museoko arduradunak ere ez du uste autobideak kalte handirik egingo dionik bisitari kopuruari. Horren adierazgarri da Aste Santuko jai egunetan izan duten turista kopuru handia.

**LANAK HASTEAR**

Autobideak eragindako zirkulazio murrizketa aprobetxatuta GI-3681 errepidetik hainbat baserritara doazen bide sarrerak zabaltzen hasiko dira. Joan zen martitzenean hasiko zituztela lanok iragarri zuen Aldundiko Errepide Sailak, baina langileak oraindik ez dira iritsi. Dena den, laster izango dira lanean Burdinkurtz eta Asteisoro baserrietara doan bidearen sarrera zabaltzen. Gero Arrate baserriko sarrera konponduko dute; lanik luzeena eta korapilatsuena. Eta bukatzeko Gatzagain inguruko bidegurutzea ukituko dute.

Arlabango errepidea konpontzeko asmoa ere badu Aldundiak –zuloak estali betun beroarekin–, eta horrekin ere Aste Santu osteko egunetan dira hastekoak.

**ANTZUOLA** > BIZTANLERIA

# Antzuolar kopuruak gora egin du iaztik eta 2.168 bizilagun daude herrian

Orain dela urte batzuk, etxe berriak eraiki zirenez, biztanle kopuruak nabarmen egin zuen gora; orain gutxiago

**I.A.** > ANTZUOLA

Antzuolako Udaletik herriko bizilagun kopurua eman digute jakitera eta 2009ko urtarrilaren 1eko datuen arabera igo egin da antzuolarren kopurua. Orain 2.168 bizilagun ditu Antzuolak. Kanpotik Antzuolara bizi izatera etorritakoak 43 dira eta jaiotakoak, berriz, 27. Baina, kanpotik etorri diren bezala, badira Antzuolatik kanpo bizitzera joan direnak ere, 47; eta baita hil diren herritarrak, 22, hain zuzen ere.

**IGOERA TXIKIA**

Udaleko datuen arabera iaz, data berean 2.146 bizilagun zeuden. Hala ere, Espainiako Estatistika Erakundeak beste kopuru bat eman zuen: 2.133 biztanle. Bi datuen artean gorabehera txikia egon daitekeenez, Estatistika Erakundeak kopurua ziurtatu arte zain egon behar da.

Hala ere, argi dago biztanleriaren gorako joera dagoela, txikia izan arren. Orain dela urte batzuk, etxe berriak eraiki eta kanpotik Antzuolara bizi izatera jende asko etorri zenez, biztanle kopuruak nabarmen egin zuen gora, baina orain kopurua txikiagoa da.



**> SASKIBALOIA**
Mondragon Unibertsitateak 76-72 galdu du Tabirakoaren aurka jaitsiera fasean > 23



**> MENDIA**
Baruntsegi gailurrerako bidea hasiko du Alberto Iñurrategik Makalu 09 espedizioan > 23



**> PILOTA**
Herri Arteko Pilota txapelketa hasi dute aste bukaeran Arrasatek eta Aretxabaletak > 27

**MENDIKO LASTERKETA** > ALOÑAKO V. IGOERA

# Astebete baino gutxiago urteko mendi-proba gogorrenerako

**DOMEKAN, HILAK 26**
10:30ean hasiko da Aloñako 5. igoera

**PROBA GOGORRA**
Lasterketa ez da luzea, baina 2.200 metroko desnibelak proba oso gogorra egiten du

**54 DEBAGOIENDAR**
Guztira 270 atleta inguruk hartuko dute parte, horietatik 54 debagoiendarrak dira



**GOGORRA** Paraje ederretan egiten den proba den arren, korrikalariek gozatu baino sufritu egiten dute Aloñako malda gogorrekin. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI

Astebete baino gutxiago falta da gurean biziko dugun urteko mendi lasterketa gogorrenetarikoa- jokatzeko:domekan egingo da Aloñako igoera. Aurten bosgarren urtez, antolatzaileek dena dute gertu egun seinalatuan euren eskuetan dagoen guztia ondo joan dadin.

**IAZKO KORRIKALARI KOPURU BERA**

Lasterkari kopuruari dagokionez, probaren antolatzaile Xanti Mendiolak jakinarazi du iazko kopurua mantendu egingo dela, hau da, guztira 270 korrikalari inguru. Horren harira, Mendiolak honakoa gaineratu gura izan du: "Azken orduan gorabeherak izaten ditugu lasterkari zerrendan, eguraldia eta beste arrazoi batzuk direla medio". Debagoiendarrei dagokienez, ibarreko 54 lasterkarik eman dute izena.

**EGURALDIA, OINARRIZKO FAKTORE**

Mendi lasterketetan eguraldia faktore garrantzitsua da, eta Aloñako igoera ez da salbuespena. Euria eta hotzak lokaztu egiten du ibilbidea eta Aloñako tontorretik behera jaitsiko dituzten 1.000 metroak arriskutsuak egiten dira. Eta gainera, probaren zeinu bereizgarri diren ikusleei ere ez die mesede egingo eguraldi txarrak. Aloñako tontorrean, korrikalarien zain, geldi eta bustita egotea ez baita oso gomendagarria.

Bero larregi ere ez da ona, lasterkarientzat batez ere. Lehenengo edizioan gogor jo zuen eguzkiak eta lasterkariak oinak egosita heldu ziren helmugara. Orduan hartu zuen Aloñako igoerak *gogorraren* fama.

**BETIKO IBILBIDEA**

Proba Oñatiko plazan hasi eta plazan amaituko da, ohi moduan. Ibilbideak ez du aldaketarik izango. Plazatik kanposatura eta handik San Juan ermitara egingo dute lasterkariek. Hor, Arregirako bidea hartuko dute eta Lamiategira jaisterakoan ezkerretara egin eta Urtiagain (490 metro) izango dute helburu. Urtiagainetik gora malda gogorrak izango dituzte aurrean atletek: Belar (922 metro) eta Aloñako gurutzea (1.288 metro). Igotzea gogorra da, baina proba ez da hor amaitzen. Tontorra eginda, korrikalariek Uribarritik egingo dute itzulerako bidea, Lezesarriko auzotik igaro eta San Estebango ermitatik Oñatira jaitsiz. Bestalde, Aloñako igoerako parte hartzaileak lau kategoriatan banatzen dira: gizonezko seniorrak (18-44 urte), gizonezko beteranoak (45 urtetik gora) eta emakumezko beteranoak (40 urtetik gora).

**ERREKORRA, ZINCAREN ESKUETAN**

Ionut Zinca atleta gasteiztarrak ezarri zuen 2006an Aloñako igoerako errekorra: Ordubete, 13 minutu eta 23 segundo.

## 15,5 kilometroko luzera eta 2.200 metroko desnibela

Aloñako igoerak 15,5 kilometroko luzera dauka. Luzera, baina, ez da lasterketa hain gogorra egiten duena. Hain zuzen ere, lasterkariek gainditu beharreko desnibela da Aloñako igoera hain berezi egiten duena: guztira 2.200 metroko desnibel metatuari egin beharko diote aurre.

Ibilbidean korrikalariek sei postu izango dituzte edariak hartzeko, eta hiru postutan eskuratu ahalko dituzte jatekoak. Horretaz aparte, hiru kontrol izango dituzte ibilbidean zehar, nork bere denbora neurtzeko.




Aloñako igoerako profila, hamaika argibiderekin. WWW.ALOINA.NET



*Eraman dotoretasuna*
*zure etxera*

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA NAZIONALA

# Datozen hiru partiduak irabazi behar ditu MUk mailari eusteko

Javier Zurbanoren mutilek ez zuten ondo jokatu zapatuan Durangon, Tabirakoren aurka, eta galdu egin zuten partidua

TABIRAKO
**76-72**
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Mondragon Unibertsitatea taldeak galdu egin zuen zapatuan Durango Tabirako taldearen aurka. "Emaitza horrek ez du gure egoera larregi okertzen, baina datozen hiru partiduak finalak bait liran jokatu behar dituzte Ointxeko jokalariek", esan du Javier Zurbanok, MUko entrenatzailea, partidua bukatu ostean.

**BIGARREN LAURDENA, EDERRA**
Indarrak defentsako lanean jarriz atera ziren talde bietako jokalariak partidua jokatzera. Durangarrak oso egoera fisiko onean zeudela antzeman zen lehen minututik eta errebote asko hartzen zituzten. Arrasatearrak aldiz, erasoa lantzen hasi ziren poliki-poliki, eta nahiz eta jaurtiketa asko egin, ez zituzten puntu asko lortu. 10-9 irakurri zitekeen markagailuan partiduaren zazpigarren minutuan. 19-17 bukatu zen lehenengo laurdena.

Bigarren laurdena, aldiz, oso bestelakoa izan zen. "Ikaragarri ondo jokatu dute MUko jokalariek: defentsako lana ezin hobea izan zen. Baloi asko berreskuratu zituzten, batez ere errebotean, eta baloia zuen jokalaria ondo presionatu zuten. Durangarrek ahal zuten moduan ibili ziren bigarren laurdenean", azaldu zuen Javier Zurbanok. Hala, MUren denboraldiko laurden onena izan zen: 13-32. Markagailua 37-49 zegoen partiduaren lehen erdia bukatu zenean.

Atsedenaldiaren ostean Tabirako taldeko jokalariek gogortu egin zuten partidua. Arrasatearrak partiduaren kontrola galtzen hasi ziren, etxekoen mesedetan. "Durangarrak ondo aritu ziren defentsan, konzentrazioa galdu genuen eta pausu bat atzetik ari ginen jokatzen. Erasoan, berriz, zaila da baloia saskiratzea korrika ibili ordez oinez ibiliz gero", jarraitu du azaltzen MUko entrenatzaileak. Partidua gidatu zuen epaileak ere durangarren alde egin zuela gaineratu zuen Zurbanok. Hala ere, gipuzkoarrak bizkaitarren aurretik zeuden markagailuan hirugarren laurdena bukatu zenean.

**LAUGARRENA, EZIN OKERRAGOA**
"Baina laugarren laurdena ikaragarri txarra izan zen. Kantxa genuen kontzentrazioa erabat galdu genuen eta Tabirako partiduaren jaun eta jabe jarri zen. Garaipenean jarritako fedea galdu zuen taldeak eta lana egiteari utzi zion", zehaztu zuen arrasatearren entrenatzaileak. Hori gutxi balitz, Arrasateko jokalariak askotan protestatu zutela ere gaineratu zuen Zurbanok.

Azken bi minututan 11 puntutatik 9 lortu zituen MU taldeak jaurtiketa libretan. 17-11 izan zen azken laurdeneko partziala.

**HURRENGO PARTIDUAK**
"Mailaz ez jaisteko irabaztea komeni zaigu. Durangoko taldeak erabakita du liga, partidu honetan ez dute ezer jokoan, baina Arrasaten galdu egin zuten eta mendekua nahiko dute, agian. Hala ere, partidua galtzen badugu, baditugu aukera gehiago". Horixe esan zuen Javier Zurbanok partidu bezperan, egubakoitzean. Partidua galdu ostean, aldiz, lasaitasuna beste modu batean azaldu zuen Zurbanok berak. "Hurrengo hiru partiduak (Getxo, Goierri eta UPNA) benetako finalak balira izango dira Ointxe taldearendako. Ausnartu egin beharko dugu galera honen aurrean eta gogor egin beharko dugu lan. Argi dago kontzentrazioa galtzen badugu nortasunik gabeko talde baten bihurtzen garela".

Getxo taldea zapatuan etorriko da Arrasateko Iturripe kiroldegira, MU taldearen aurka jokatzeko. Orduan ikusi behar dugu Durangoko emaitzak ze arrasto utzi duen Ointxekoengan.



Imanol Zeziaga jokalaria Durangon jokatutako partiduaren une baten. OINTXE ELKARTEA



MIREN ARREGI

## Realak irabazi zion Athletici Agorrosinen

Realak 4 eta 0 irabazi zion Athletici Bergarako Agorrosin futbol zelaian jokatu zuten Realak antolatutako Nazioarteko Gazte mailako txapelketako partiduan. Talde donostiarrak lehen minutuan sartu zuen lehen gola eta nagusitasun osoz irabazi zion Athletici. Agorrosin jendez beteta egon zen. Txapelketa horrek 25 urte bete ditu aurten.



Zabaltza, Vallejo eta Iñurrategi Baruntse mendira bidean. GOIENKARIA

**MENDIA** > MAKALU'09 ESPEDIZIOA

# Baruntseko gailurrerako bidea hasiko du Iñurrategik

Aste pare bat egingo dute Baruntse inguruan, Makalura joateko aklimatazioa biribiltzeko

**O.E.** > BERGARA
Baruntse mendiaren gailurrera (7.152 m) heltzen saiatuko dira datozen bi astetan Alberto Iñurrategi, Mikel Zabaltza eta Juan Vallejo, Naturgas Makalu'09 espedizioko mendizaleak.

**MATERIALA GARRAIATZEN**
Dagoeneko egun pare bat egin dituzte hiru mendizaleek Baruntse mendiaren magalean, 6.000 metro inguruan, Makaluko erronkari ekiteko aurreko pausu bezala.

Baruntsen bi kanpaleku jarri gura dituzte eta horiek hornitzeko materiala eramateko egin dute lehen bidaia: 50m x 5mm-ko bi soka, bi torloju, titaniozko bi iltze, lau fisurero, lau piolet, denda bat, sukalde txiki bat, bi gas kartutxo, bideokamara bat eta janaria: gosaltzeko gailetak eta tea, bazkaritarako barratxo energetikoak eta entsaladatxoak eta afaritarako zopak. Ura elurra urtuta eskuratuko dute eta harekin nahastuko dituzte hauts isotonikoak eta zopak. Bestalde, norberaren materiala ere eraman dute: kranpoiak, arnesa, segurtasunerako mosketoia, aseguratzailea, alturako botak eta arropa, besteak beste.

Atzo, domeka, oinarrizko kanpalekura itzuli ziren eta bizpahiru egunetan atsedena hartu ostean, berriz hartuko dute Baruntse mendiko bidea, gailurra egiteko asmoz.

**FUTBOLA** > ARETXABALETA

# "Psikologikoki oso indartsu gaude azken txanpari aurre egiteko"

Preferenteko azken sei partiduei aurre egiteko sendo ikusten du taldea Igor Gordobilek

Hurrengo bi jardunaldiak etxetik kanpo jokatuko dituzte: Anaitasunaren eta Idiazabalen aurka

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

Sei jardunaldi falta dira preferente mailako liga bukatzeko, eta talde guztiek dute zerbait jokoan. Aretxabaletak sailkapenean duen abantailari eutsi nahi dio (bost puntuko tartea du Hernanirekin eta seikoa Tolosarekin), eta horretarako Anaitasunaren aurkako partidua irabazi behar du. "Fisikoki talde indartsua da eta partidua oso gogorra izango da. Gainera euren zelaia oso txikia da, eta ikusi beharko dugu nola moldatzen garen", esan digu UDAko entrenatzaile Igor Gordobilek. Zapatuko partidurako jokalari guztiak izango ditu aukeran, Iban Lopez izan ezik: txartelengatik zigorra beteko du-eta.

Orain arte moduan, "partiduz partidu" joango direla esan digu Gordobilek. Gaineratu digu ez dela hasi hirugarren mailara igotzeko zenbat puntu behar dituzten zenbatzen: "Sei partidu falta zaizkigu: bi etxean jokatuko ditugu eta beste laurak etxetik kanpo. Jokalariei esan diet gure helburu bakarra dela partidu guztiak irabaztea. Dena den, badakigu ez dela erraza izango; besteak beste, hurrengo bi partiduak etxetik kanpo jokatuko ditugulako. Era berean, Tolosaren aurka jokatu beharko dugu".

Inportanteena euren partiduak irabaztea den arren, gainerako emaitzei begira egon beharko dute; bereziki, Hernaniren eta Tolosaren arteko lehiako emaitzari. "Hernanik eta Tolosak elkarren kontra jokatuko duten partiduko emaitza inportantea izango da, guk hiru puntuak lortzen baditugu. Guk irabazi, eta Hernanik eta Tolosak berdinduko balute, jardunaldi borobila izango litzateke guretako", esan digu Gordobilek.

ESANAK

**"Guk irabazi, eta Hernanik eta Tolosak euren artean berdinduko balute, jardunaldi borobila izango litzateke"**

**Igor Gordobil** > UDAko entrenatzaile

**EUREN ESKU DAGO IGOERA**

Liga bukaerari begira taldea nola dagoen galdetu diote Gorbobili. "Psikologikoki oso indartsu gaude azken partiduei aurre egiteko. Jokalariak ezagutzen ditut, eta badakit une zailetan burua hotz mantetzen dakitela". Sailkapena begiratuta aretxabaletarrek euren eskutan dute hirugarren mailarako igoera, eta entrenatzaileek eta jokalariek badakite: "Gure eskuetan dago, baina inork ez dezala pentsa erraza izango denik. Gu partidu guztiak irabazten ahaleginduko gara, baina kontrola ezin daitezkeen gauzak gerta litezke. Partiduak ez dira hamar minututan irabazten, landu egin behar dira".



Imanol Rodriguez baloia menderatu guran Hondarribiaren kontrako lehian. ARTXIBOA

### UDAri falta zaizkion lehiak

> Anaitasuna-Aretxabaleta
Apirilaren 26an

> Idiazabal-Aretxabaleta
Maiatzaren 3an

> Aretxabaleta-Astig.Mundarro
Maiatzaren 10ean

> Tolosa-Aretxabaleta
Maiatzaren 17an

> Aretxabaleta-Mondra
Maiatzaren 24an

> Aloña Mendi-Aretxabaleta
Maiatzaren 31an

**FUTBOLA** > MONDRA

# Mondra-Zumaiako: hil ala biziko lehia bi taldeendako

Puntuak inportanteak dira biendako: Mondrarendako, liga lasaiago bukatzeko; eta Zumaiakorendako sailkapeneko zulotik irteteko

**M.B.** > ARRASATE

Denboraldia lasai bukatu nahi badu, nahita nahi ez irabazi behar du Mondrak Zumaiakoren kontrako partidua. Biek ala biek dute denboraldi osoa jokoan; hortaz, lehia gogorra izango dela uste du Mondrako entrenatzaile Andoni Azkargortak: "Oraindik bi taldeok ditugu helburuak bete barik, eta puntuak inportanteak dira biondako: guretako, denboraldia lasaiago bukatzeko aukera izango genukeelako, eta eurendako sailkapeneko zulotik irtetzeko azken aukera izango luketelako". Dena den, zapatuan irabazi arren badakite azken hiru partiduetara arte ez diotela matematikoki mailari eutsiko. "Zazpi puntuko abantaila dugu jaitsierako postuekin, eta atzetik dauden taldeekin gol averagea gure aldekoa da", esan digu Azkargortak.

**PUNTUAK DIRA INPORTANTEAK**

Mojategin etxetik kanpo baino puntu gehiago lortu ditu Mondrak, baina egindako jokoarengatik askoz gehiago merezi dutela uste du Azkargortak: "Gol aukera asko egin ditugu, baina emaitzak mantentzea kosta zaigu. Markagailuan aurretik jarri garenean esperientzia falta izan zaigu emaitza mantentzeko. Dena den, jokalariek egindako lana azpimarratu gurako nuke".

Azaroan bolada ona izan zuen Mondrak (12 puntutik 10 lortu zituen), baina abendutik otsailera pikutara bidali zuen ordura arte egindako lana: 10 jardunalditan 33 puntutik bost bakarrik eskuratu zituzten. Hemendik aurrera baina, joko ona baino inportanteagoak dira puntuak.



Iker Laspiur baloia gidatzen Tolosaren aurkako partiduan, taldekide Andoni eta Gamendia (11) begira dituela. ARTXIBOA

### Mondraren partiduak

> Zumaiako-Mondra
Apirilaren 26an

> Mondra-Hernani
Maiatzaren 3an

> Trintxerpe-Mondra
Maiatzaren 10ean

> Mondra-Euskalduna
Maiatzaren 17an

> UDA-Mondra
Maiatzaren 24an

> Mondra-Idiazabal
Maiatzaren 31an

### "Zalantza barik, UDA mailaz igoko da"

Bi urtez UDAko entrenatzaile Igor Gordobilen laguntzaile izan zen Mondrako aulkitxoan, eta aretxabaletarrek hirugarren mailara igotzeko duten aukeraz galdetu diogu Andoni Azkargortari. Zalantza barik erantzun digu: "Bai, hirugarren mailara igoko dira, ez daukat inolako zalantzarik. Euren esku dago eta ez dute huts egingo. Gainera, asko poztuko naiz Igor Gordobilengatik. Merezi duela uste dut".

Ibarra futbol zelaiko harmailetan egon dela esan digu, eta aretxabaletarrek egindako lanari buruz galdetu diogu: "Talde sendoa dute, baina batez ere oso indartsuak dira atzeko lerroetan. Preferenteko talde indartsuenen kontra ez dute golik jaso. Esperientzi handiko jokalariak ditu atzean eta erdian. Aurrean ez dute gol aukera asko sortu, baina egindakoak aprobetxatu dituzte".

**FUTBOLA** > ALOÑA

# Azken sailkatuaren kontra jokatuko du Aloñak sailkapenean gora egiteko asmoz

## Aloña Mendi sailkapeneko seigarren tokian dago 47 punturekin


Aloñako jokalari Unai Arregi baloiarekin, Mundarroko bi jokalariren artean; atzean, Iker Maiztegi. ARTXIBOA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Sailkapeneko lehen tokian zegoela, lau partidu jarraian galdu zituen Aloñak otsailean eta martxoan. Hirugarren mailara igotzeko aukerei buruz berba egiten hasi, eta ordura arteko bolada ona bapatean bukatu zitzaien. Lehen postua urruti dute (UDA 11 puntura dago), baina bigarren edo hirugarren tokian bukatu gura dute, eta horretarako ezinbestean irabazi behar dute Deban. "Amaikak Bat sailkapeneko azkena da, baina zaila izango da irabaztea. Debako taldearen atzeko lerroa nahiko ahula da, baina zelai erditik aurrera jokalari onak dituzte", dio Aloñako entrenatzaile Josu Zubiak.

Hamaikakoa egiteko 18 jokalari izango ditu aukeran. "Jokalari gutxiko taldea gara, eta horrek zailtasunak eman dizkigu. Jokalari inportanteak lesionatuta egon dira urte osoan".

**SAILKAPENEAN GORA EGITEA**

Liga bukaerarako duten helburu bakarra sailkapenean gora egitea da: "Orain dugun postua baino sari hobea merezi dugu. Ahalik eta goren bukatu nahi dugu. Gainera, goiko postuetan dauden taldeek euren artean jokatu behar ko dute". Hirugarren mailara igotzeko aukerak dituzten taldeen arteko lehia oso gogorra izango dela uste du : "Ez dut uste talde guztiak lehia guztiak irabazteko gai izango direnik. Huts gutxien egiten duena igoko da".

### Aloñaren azken sei partiduak

- > Amaikak Bat-Aloña Mendi Apirilaren 26an
- > Aloña Mendi-Zumaiako Maiatzaren 3an
- > Hernani-Aloña Mendi Maiatzaren 10ean
- > Aloña Mendi-Trintxerpe Maiatzaren 17an
- > Euskalduna-Aloña Mendi Maiatzaren 24an
- > Aloña Mendi-UDA Maiatzaren 31n

**Manu Diaz** > Bergarako futbol taldeko entrenatzailea

# "Zapatuan zaleekin ospatu nahi dugu igoera Agorrosinen, ezin dugu huts egin"

**M.B.** > BERGARA

**Bi puntu falta zaizkio Bergara futbol taldeari, matematikoki, preferente mailarako igoera lortzeko. Urte osoko lanak saria izan dezake aste bukaeran Agorrosin futbol zelaian. Manu Diaz entrenatzailearekin egin dugu berba.**


Manu Diaz. GOIENKARIA

**Bergara-Anaitasuna, Agorrosinen. Irabaziz gero, preferente mailara.**

Bai, hala da. Egia esan, bi puntu falta zaizkigu, matematikoki, preferentera igoera. Aste bukaeran lortu nahi badugu, Anaitasunaren aurka irabazi beharko dugu. Baina, hala ez bada eta Mutrikuk ez baditu hiru puntuak lortzen, hurrengo urtean preferente mailan jokatuko dugu.

Dena den, gure asmoa da igoera zaleekin ospatzea, zapatuan. Ezin dugu huts egin orain.

**Anaitasunaren kontra jokatuko duzue. Nola aurreikusten duzu?**

Partidu guztien antzera, oso zaila eta gogorra izango da. Azpeitiarrendako maila mantentzeko azken aukera izango da, eta irabazteko asmoz etorriko dira. Halako partiduak deserosoak dira. Etxean jokatu genuen azken lehian, Lazkao puntu beharrean etorri zen. Markagailuan aurreratu ginen, baina azken minutuetan berdinketa lortu zuten. Hortaz, argi ibili beharko dugu.

**Zuek huts egiteko tarte gehiago duzue.**

Liga bukatu arte Mutrikuk baino bi puntu gehiago lortu behar ditugu. Hortaz, huts egiteko tartea dugu. Baina gure gogoa da igoera zapatuan ospatzea Agorrosingo zaleekin.

**Zenbat buelta eman dizkiozu partiduari Aste Santuko oporretan?**

Egia esan, oso luzeak egin zaizkit. Gustura hartu ditugu oporrak, baina helburua betetzeko horren gutxi geratzen zaigula ikusi eta liga etetea... Orain ikusiko dugu etenaldiak mesede edo kalte egiten digun.

**Aurreko eguaztenean hasi zineten partidua prestatzen. Nola daude jokalariak?**

Urduri daude, baina zapatuko partidua iristeko irrikaz. Aldagelan antsietate handia dago, eta asteko entrenamenduetan hori kontrolatzen ahalegin duko gara. Nik garbi utzi diet, huts egiteko tartea badugula, baina jokalariek zapatuan irabazi nahi dute.

**Zaleekin ospatu nahi duzue, baina zaleek erantzungo al dute?**

Lau urte daramatzagu preferentetik kanpo, eta hau da taldea animatzeko unea, noiz bestela?

**Zorte on zapatuan.**

Eskerrik asko.

### emaitzak eta partiduak

**PREFERENTE MAILA**

Sailkapena

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. Aretxabaleta | 58 | 28 |
| 2. Hernani | 53 | 28 |
| 3. Tolosa | 52 | 28 |
| 4. Pasaia | 48 | 28 |
| 5. Real Union | 47 | 28 |
| 6. Aloña Mendi | 47 | 28 |
| 7. Trintxerpe | 46 | 28 |
| 8. Hondarribia | 45 | 28 |
| 9. Berio | 44 | 28 |
| 10. Idiazabal | 42 | 28 |
| 11. Ondarroako Aurrera | 35 | 28 |
| 12. Euskalduna | 29 | 28 |
| 13. Mondra | 28 | 28 |
| 14. Vasconia | 26 | 28 |
| 15. Mundarro | 24 | 28 |
| 16. Anaitasuna | 22 | 28 |
| 17. Zumaiako | 20 | 28 |
| 18. Amaikak Bat | 17 | 28 |

Hurrengoak

- Real Union-Vasconia
- Hondarribia-Pasajes
- Aurrera Berio
- Amaikak Bat-Aloña Mendi
- Zumaiako-Mondra
- Hernani-Tolosa
- Trintxerpe-Mundarro
- Euskalduna-Idiazabal
- Anaitasuna-Aretxabaleta

**LEHENENGO ERREGIONALA**

Sailkapena

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. Bergara | 62 | 26 |
| 2. Mutriku | 51 | 26 |
| 3. Zestoa | 46 | 26 |
| 4. Lagun Onak | 43 | 26 |
| 5. Urola | 40 | 26 |
| 6. Antzuola | 36 | 26 |
| 7. BTLS | 35 | 26 |
| 8. Orioko | 33 | 26 |
| 9. Elgoibar | 32 | 26 |
| 10. Ilintxa | 31 | 26 |
| 11. Aretxabaleta | 31 | 26 |
| 12. Tolosa | 28 | 26 |
| 13. Eibartarrak | 28 | 26 |
| 14. Lazkao | 28 | 26 |
| 15. Anaitasuna | 26 | 26 |
| 16. Mondragon | 23 | 26 |

Hurrengoak

- Aretxabaleta-BTLS
- Tolosa-Orioko
- Mondra-Eibartarrak
- Amaikak Bat-Aloña Mendi
- Zumaiako-Mondra
- Hernani-Tolosa
- Trintxerpe-Mundarro
- Euskalduna-Idiazabal
- Anaitasuna-Aretxabaleta

Kirolak Harmailatik

Debagoieneko kirola
GOITBn

Astelehenero
22:15ean.

Jone Muxika > Txirrindularia

# "Ikusi dut geldi egonez gero, okerrago nagoela"




Jone Muxika txirrindularia Elgetan, bere herrian. O.E.

OIHANA ELORTZA > ELGETA

**Herritarren omenaldia jaso du Jone Muxika (Elgeta, 1973) txirrindulariak. Azken denboraldietan bezala, aurten ere lehen postuak lortu ditu Gipuzkoako eta Euskal Herriko ziklo-kros txapelketetan. Espainiakoan, bosgarren egin du. Gerriko lesioari aurre eginez, lasterketetan parte hartzeko asmoa du oraindik. Lagunek Marmot lasterketarako apuntatu dute.**

**Zorionak. Aurten ere herritarrek ikusi dute lan txukuna egin duzula.**

Eskerrik asko. Bai, eta asko eskertzen da hori. Elgeta berezia da horretan eta polita izaten da omenaldia jasotzea.

**Denboraldi garaian ere gogoratzen dira zutaz? Joaten dira lasterketetara zu animatzea?**

Ez horrenbeste, egia esan. Ziklo-krosa independientea da, ez da talde bat bezala, eta batzuetan faltan botatzen dira lagunen txaloak, bai.

**Gogorra izan da ziklo-kros denboraldia?**

Urtarrila bukaeran amaitu genuen aurtengo denboraldia eta gogorra izan da.

Hala ere, pozik nago lortutakoarekin. Euskal Herri mailan ondo bukatu dut, azken urteotako maila berean, eta pozik nago. Espainia mailan ordea, zirkuituak ezberdinak dira eta baita nibela ere. Baina ni pozik nago, aurten ere saiatu naizelako. Azken batean bakoitzak bere lesioak eta bere kontuak izaten ditu, baina ahaleginak eginez gero lortu egiten dira helburuak. Garrantzitsua horixe da, gogoa izatea eta egunero saiatzea.

**Helburu bat jartzen diozu zeure buruari denboraldia hasten den bakoitzean?**

Orain arte lesioarekin batera joan dira lasterketak ere, batak bestea bultzatzen du-eta. Nire ilusioa ondo sentitzea da eta garaipenak, lanarekin datoz.

**Zuk, gainera, ohitura duzu lesioen jarraipena idatziz egiteko, ezta?**

Bai, egin izan dut hori. Azken aldian, ordea, geldi nago, konponbide garbirik ez du lesioak eta. Mokorra eta pelbis ingurua dut lesionatuta.

**Zer mugatzen dizu horrek?**

Tope bat dugu denok eta gainditzea gustatzen zaigu. Lesioak muga jarri dezake, bai, baina ikusi dut geldi egonez gero okerrago sentitzen naizela. Gorputzak mugimendua behar du.

**Beraz, ia behartuta zaude lasterketak egitera?**

Bai. Niretako bizikleta bizitza da eta hori kentzen badidate, akabo.

**Ziklo-krosa bukatuta, hemendik aurrera, zer?**

Azken bi hilabete hauetan nahiko geldirik egon naiz eta oraintxe hasiko naiz berriko lasterketa eta zikloturisten irteeretan parte hartzen. Marmot probarako ere apuntatu naute. Ea denbora dudan lasterketa hori prestatzeko. Gogoa, behintzat, ez zait falta.

**Lagunek apuntatu zaituzte?**

Bai. Egia esan banuen asmoa egiteko eta hori ikusita, nire izena ematea pentsatu zuten. Uztailaren 5ean izango da proba hori. Quebrantahuesos baino gogorragoa dela diote, mendate oso gogorrak daudela. Entrenatzeko denbora hartu behar dut orain. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

**Quebrantahuesos egingo duzu aurten?**

Ez. Apuntatzea ere ez da erraza izan baina ez da aurtengo helburuetako bat. Joan den urtean ondo aritu nintzen, baina aurten beste proba batzuk egin gura ditut, nahiz eta oraindik egutegirik egin ez.

**Laguntza tekniko aldetik, babesle aldetik, zer moduz?**

Ezin naiz kexatu, egia esan. Lemoako enpresa batek babestu nau, Alfa Deco Subconjuntos, eta horrek lagundu dit, eskerrak horri. Pozik nago.

**Eurekin jarraituko duzu?**

Ikusi egin behar. Etxekoak dira eta ni gustura nago eurekin, baina ikusi egin behar. Nik zer egiten dudan ere ikusteko dago oraindik, eta ez dago jakiterik jarraituko dudan edo ez. Bestalde, krisia ere heldu da arlo honetara. Gutxi egongo dira krisia sentitu barik dabiltzanak.

**"Pozik nago herriak egindako omenaldiarekin, Elgeta berezia da horretan"**

**"Ahaleginak eginez gero lortzen dira helburuak, egunero saiatu behar da"**

**"Euskal Herrian azken urteetako maila berean jarraitzen dut, ondo; eta pozik nago"**

**"Lemoako enpresa batek babestu nau, baina hemendik aurrera, ikusi egin behar"**

## Bizikleta festaren barruan omendu dute Muxika

Ziklo-krosean egindako denboraldi onagatik zorionak eman zizkioten herritarrek Jone Muxika txirrindulari elgetarrari. Zapatuan egin zioten omenaldi txikian zoriondu zuten. Muxikak pozik jaso zituen lore sorta eta besarkadak eta eskerrak eman zizkien guztiei.

Bizikleta festaren barruan jaso zuen omenaldia Jone Muxikak. Goizean bi ordu pasako bizikleta irteera egin zuten dozena inguru txirrindularik. Bitartean, herriko txikienak bizikleta lasterketak eta jolasak egin zituzten Salbador kalean.



Nagusiek zein txikiek, guztiek hartu zuten parte Muxikaren omenaldian. O.E.

**PILOTA** > HERRI ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

# Aretxabaletak hiru lehiak galdu ditu, eta Arrasatek 28 tantoko abantaila du

Aretxabaletarrek atzo jokatu zuten Azkoitiren aurka Herri Arteko Pilota txapelketa

Arrasateko pilotariak kadete eta gazte mailetako norgehiagokak irabazi zituzten egubakoitzean

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Aste bukaeran abiatu da Herri Arteko Pilota txapelketa. Lehen kanporaketa etxean jokatu dute Arrasateko eta Aretxabaletako pilotariek, hurrenez hurren, Albizturgo eta Azkoitiko pilotarien aurka. Bi taldeek oso bestelako emaitzak lortu dituzte itzulerako partiduetarako: Arrasatek kadete eta gazte mailetako partiduak irabazita, 28 tantoko abantaila izango du; Aretxabaletak aldiz, hiru partiduak galdu ditu etxean emaitza zabalekin eta aurrera jarraitzeko aukera guztiak galdu ditu.

**ARRASATE-ALBIZTUR**

Iaz arazo burokratikoengatik txapelketatik kanpo geratu ondoren, gogotsu ekin diote lehiari Arrasateko pilotariek. Egubakoitzean Uarkapen jokatutako partiduetako ezustekoa kadete mailako bikote arrasatearrak eman zuen. Beñat Arabaolatzak eta Danel Etxagibelek 22-10 menderatu zuten norgehiagoka. "Nola jokatu behar zuten zehazteko berba egin dugu partidua hasi aurretik, eta esan diet kontu handiz ibiltzeko Albizturgo atzelari Labakarekin", esan digu Mauri Zubillagak. Arabaolatza atzelariak indartsu eta seguru jokatu zuen, eta Etxagibelek tantoak ondo bukatu zituen aurreko koadroetan.

Ezustekoarekin, baina lehen partidua irabazita, Iker Agirregabiria eta Ibai Bolinaga irten ziren kantxara. Arrasatearrek erraztasun osoz irabazi zuten: 22-1. "Bikote oso ona da, eta euren kontra irabazteko asko jokatu behar dute besteek. Partidu gutxi galduko dituzte", dio Zubillagak. Biak ala biak dira aurrelariak, baina bikote moduan jokatzen dutenean, Bolinagak jokatzen du aurrean. "Agirregabiriak baino errazago bukatzen ditu tantoak", dio Zubillagak.

Nagusien mailako partiduan Albizturgo bikoteak irabazi zuen 22-18. Aitor Lazkanok eta Aitor Agirrek ez zuten aukerarik izan partidua irabazteko. "Tanto asko egin dituzte, baina Albizturgo pilotariek maila ona erakutsi dute. Dena den, nagusien mailako partidua galtzea aurreikusten genuen".

Itzulerako partiduak Albizturren jokatuko dituzte, eta kadete mailako partidua izango da kakoa: "Kadeteena irabazten badugu, aurrera egingo dugu. Dena den, kontu handiz irtengo gara frontoira oso estua da-eta".

Herri Arteko Pilota txapelketa irabazteko hautagaien izenak eman dizkigu Zubillagak: Bergara, Azpeitia eta Donostia.

**ARETXABALETA-AZKOITIA**

Aretxabaletako pilotariek atzo hasi zuten txapelketa eta hiru partiduak galdu zituzten Iturigorri pilotalekuan Azkoitiren aurka. Hortaz, kanporaketa gainditzeko aukera guztiak galdu dituzte.

Kadete mailako bikote Unai eta Beñat Urrutia anaiek 22-2 galdu zuten. Ez zuten partidua irabazteko aukerarik izan. "Kadete mailako aurrelaria, adinez infantil mailakoa da oraindik, eta esperientzia falta zaio. Gainera, atzelariak ez du dakien moduan jokatu", esan digu Jose Ramon Urrutiak.

Gazte mailako bi bikoteak parekatuago ibili ziren. Aretxabaletako Jon Etxeberriak eta Oier Mondragonek 11 tanto egin zituzten. "Maila eman dute baina tanto asko motz geratu zaizkie", dio Urrutiak.

Hirugarren lehia, nagusien mailakoa, oso parekatua izan zen. Sergio Uriarte eta Aitor Altzola aretxabaletarrek ondo jokatu zuten hamaikagarren tantora arte. 11na berdindu zuten partidua, baina handik aurrera azkoitiarrak izan ziren nagusi.



Goian U. Urrutia, B. Urrutia, Uriarte eta Errasti. Behean, Altzola, Etxeberria eta Mondragon. JOSETXO ARANTZABAL



Goian Zubillaga, Lazkano, Bolinaga eta Agirregabiria. Behean, Etxagibel, Arabaolatza eta Agirre. JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaletarrek tanto bakarra egin zuten, eta azkoitiarrek aprobetxatu zuten, ziztu bizian, 22. tantora heltzeko.

**HAUTAGAI NAGUSI BARIK**

Herri Arteko Pilota txapelketa irabazteko hautagaiei buruz galdetu diogu Jose Ramon Urrutiari: "Ez nuke herri bakar bat aipatuko. Kanporaketak nola geratzen diren ikusi beharko dugu hautagaia zehazteko".

ESANAK

**"Kanporaketa gainditzeko kakoa Albizturren jokatuko dugun kadete mailako partidua irabaztea izango da"**

**Mauri Zubillaga** >Arrasate

**"Bagenekien aukera gutxi genituela aurrera egiteko Azkoitiren kontra jokatu behar genuela jakin ondoren"**

**Jose Ramon Urrutia** > Aretxabaleta

## Bergarako pilotariak bigarren kanporaketan sartuko dira lehian

Bergara Herri Arteko Pilota txapelketako zerrendaburu denez, bigarren kanporaketan sartuko da lehian (maiatzeko lehen aste bukaeran). Hain zuzen ere, Andoain-Bidegoiain kanporaketa gainditzen dutenen aurka. Bergarako pilotarien arduradun Reyes Azkoitia joaneko partiduak ikusten egon zen barikuan. "Andoaingo pilotariek hartu dute abantaila: kadete eta gazte mailetako partiduak irabazi dituzte-eta. Gainera, 17 tantoko abantaila dute". Andoaindarrak dira kanporaketa gainditzeko hautagai nagusia, baina bergararrek nahiago dute Bidegoiaingo pilotarien aurka jokatu: "Aukeran Bidegoiainen kontra jokatu nahiko genuke, Andoaingo bikoteak indartsuagoak dira-eta. Bereziki indartsuak dira kadete eta gazte mailetako bikoteak. Hortaz, Andoaingo taldearen aurkako kanporaketa zailagoa izango da guretako".

**BERGARAKO BIKOTEAK**

Bergarako hiru bikoteek maila polita dutela esan digu Reyes Azkoitiak. Mikel Gallastegik eta Beñat Resustak osatuko dute kadete mailakoa. Udaberri txapelketa irabazi berri dute eta bikote sendoa osatzen dutela esan digu Azkoitiak. Era berean, gazte mailako bikotea nahiko irregularra dela esan digu: "Haritz Resustak eta Gorka Irizarrek elkar ondo ezagutzen dute, baina irregularrak dira: partidu onak eta txarrak egiteko gai dira". Afizionatu mailako bikotea sendoa dela esan digu, baina Jon Larrañagaren arazo fisikoei begira daude: "Larrañaga jokatzeko moduan badago, ez lukete arazorik izan beharko euren partiduak irabazteko, Ander Mugurutzarekin bikote sendoa egiten du-eta". Reyes Azkoitiarendako Azpeitia da txapelketa irabazteko hautagai nagusia.



**Dabid Berezibar**
> Irakaslea

Garai baten herriak ibai zein erreka inguruetan sortzen ziren eta, besteak beste, herrietara sartzeko erabiltzen zuten herritarrek. Gaur, ordea, errekak ez daude gu bertan sartzeko moduan. Horregatik, gaur egun, igerilekuak ditugu. Urak kirola egiteko balio du, baita osasuntsu mantentzeko ere. Gaurkoan, igerilekuak zelan erabili, zertarako den ona igeri egitea eta zeinendako den aproposa azaltzen ahaleginduko naiz.

**OHAR BATZUK**

**Grabitatearen aurka:** uretan hamabi aldiz txikiagoa da grabitatearen eragina; beraz, artikulazioek gutxiago sufritzen dute.

**Estiloak:** berez lau estilo daude definituta: crawl, bizkarra, bular estiloa eta tximeleta, crawla izanik gehien erabiltzen dena; dena dela, norberaren estiloak ere balio du.

**Materiala:** txankletak, bainujantzia, txanoa, betaurrekoak eta toalla.

**Higienea:** bainujantzi azpitik barruko arroparik ez erabili eta uretara sartu aurretik dutxatu.



Igeriketa oso osasungarria da, edozein adinetan, gainera: umetan, gaztetan, zahartzaroan... ARIZMENDI

**KIROLA** > IGERIKETA

# Igeriketa, kirol osasungarria

**Eguraldi txarra egiten duenerako:** igerilekuan egiten den jarduera denez, eguraldi txarra egiten duenerako ere aproposa da igeriketa egitea.

**Familia giroan:** seme-alabekin denbora atsegina pasatzeko leku aproposa da.

**Entrenatzeko:** igerilariez gain, surflariek, triatloilariek, urpekariek zein sorosleek ere erabiltzen dute entrenatzeko.

**Hainbat gimnasia:** uretan egiten diren ekintza ugari daude: aquagima, spinninga…

**Hidratazioa:** ez iruditu arren, egarria pasatzen da eta hidratazioa ezinbestekoa da: hasi aurretik eta ostean ura edan behar da.

**Kaloria galera:** minutuko 7-10 kaloria galtzen dira igeriketan. Baina koipea metabolizatzen hasteko, ariketa egiten 30 minutu egon beharra dago.

**Erritmoa nola jakin:** 4x1 sistema erabiltzen da. Korrikan mila metro bost minutuan egiten badira, igeriketan mila metroak hogei minutuan egin beharko dira. Oinez mila metro zortzi minutuan eginez gero, igeriketan mila metro 32 minutuan.

## IGERIKETA EGITEAREN ONURAK

**HAURDUN DAGOENARENTZAT**

> Erditzeko momenturako prestatu: erditzeko unera fisikoki ondo iristea ezinbestekoa da; igeri egiteak izugarri lagunduko dio.

> Uretan arintasuna: arintasun sentsazioak artikulazioen askatasuna dakar, oso zailak diren mugimenduak egin daitezke.

> Posizio horizontala: uretan horizontalean mugitzeak gorputzaren pisu banaketa dakar, lunbarrak kargatu barik.

> Bihotz-arnasketa sisteman hobekuntzak: ariketa aerobikoa izanik, odolaren garraioa azkartu egiten da eta arnas eskakizuna ere handitu egiten da.

> Hanketako pisu sentsazioa hobetu: odolaren garraioa, batik bat bueltakoa, hobetzen da, urak zainetan presioa egiten baitu, barizeen agerpena atzeratuz.

> Giharren tonifikazioa: gorputzeko atal guztiak erabiltzeak gihar guztiak gogor mantentzen dizkigu.

> Gerriko gainkarga arintzea laguntzen du.

**HAUR IGERIKETAK DAKARRENA**

> Psikomotor garapena: oraindik oinez ez dakiten haurrek uretan mugitzeko gaitasuna lantzen dute.

> Bihotz-arnasketa sistema hobetzea: oxigenatzea eta odol zirkulazioaren hobetzea dakartza.

> Adimen-kozientea handitu: sormena eta behaketa ahalmena handitzen da.

> Sozializazioan hastapena: taldean mugitzeko eta komunikatzeko konfiantza handitzen da, jolasteko gaitasuna estimulatuz.

> Haurrari lasaitzen laguntzen dio.

> Norberarekiko segurtasuna bermatzen laguntzen du.

**DENONDAKO**

> Min eta lesioen aurrean errekuperazioa: orkatila, belaun zein bizkarreko lesioak dituztenek aukera ona dute lesioa errekuperatzeko, baita lesioa dagoen inguruko giharrak gogortzeko ere.

> Gazte mantentzeko: ohiko ibilalditxoa egiteaz gain, igeri egiteak gihar atrofia atzeratzen du.

## Entrenamendua

**> BOLUMENA**

Ekintza fisiko batek organismoan moldaketak eragingo ditu, betiere estimulua metabolismoa aktibatzeko bezain exijentea bada. Estimuluaren adierazle gisa bolumena eta intentsitatea erabiltzen dira.

**> ENTRENATU BEHARRA**

Korrikan eta txirrinduan aritu ez ezik, igerian ere entrenatu beharra dago. Crawlean arituko gara, estilo azkarrena baita. Entrenamenduan erresistentzia landuko dugu.

Ohikoena 1.500 metroko distantzia izaten da. Beraz, 1.000-1.500 metroko saiakerak egingo ditugu. Baita abiadura hartzeko saioak ere: 200 metrokoak edo 500 metrokoak. Indarra besoetan zentratzea komeni da, hanken erabilera korrika eta bizikletarako erreserbatuko dugu.

Besoetan indarra hartzeko eskuzorro bereziak erabil ditzakegu.

## CRAWL ESTILOKO TEKNIKA




Besoen mugimendua ur azpian.



Arnasa eta besoen mugimendua ur kanpoan.

## Datorren astean...

Korrika, igeriketa, **gimnasioko entrenamenduak**, kirol mitoak..

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA



**> DISTORSION**
Barakaldoko punk talde beteranoak umorea barra-barra zabaldu zuen 3.60 aretoan **> 30**



**> ANTZERKIA**
Sarrionandiaren olerkietan oinarritutako 'Aulki hutsa' antzezlana, Zabalotegi aretoan **> 30**



**> MUSIKA**
Datorren zapatuan Granadako Lagartija Nick taldea Bergarako Jam aretoan izango da **> 31**

# Entseguak bukatuta taula gainera igotzeko garaia da

Hilaren 25ean egingo dute Kantariren lehen ikuskizuna, Oñatiko Gaztelekuan

212 talde igoko dira taula gainera; Goitb hilaren 30ean hasiko da saioak emititzen

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Guztia prest dago, beraz, taula gainera igotzeko momentua iritsi da. Kantari hastear da eta aurten ere indartsu eta ondo pasatzeko asmoarekin dator karaoke saioa.

Goiena Telebistak apirilaren 25ean hasiko ditu grabaketak Oñatin, eta Bergarako Zabalotegi aretoan amaituko dute bira. Kantarin parte hartuko duten haurren lagun eta familiartekoek ateak irekita dituzte grabazio saioetara joateko. Bergarako eta Aretxabaletako emanaldietarako, baina, sarrerak banatuko dira doan; izan ere, Arkupe kultura etxean eta Zabalotegi aretoan sar daitekeen pertsona kopurua mugatua da. Parte-hartzaile bakoitzari bi sarrera emango zaizkio, baina, horretaz gain sarrera gehiago eskuratzeko aukera ere egongo da.

Aurtengo edizioa, gainera, berrikuntzaz beteta dator. Abesti berriak entzungo ditugu eta agertokia ere berria izango da. Baina, duda barik, aurtengo berrikuntza nagusia bloga izan da: *www.goiena.net/blogak/kantari*. Parte-hartzaileek ondo ezagutzen dute dagoeneko bloga, erabiltzaile pila bat ditu. Umeek entseguetako argazkiak ikusteko aukera izan dute bertan eta iritziak idazteko aukera ere izan dute aurten. Blogak ere lanean jarraituko du aurrerantzean. Hori horrela, haurrek saioetako argazkiak ikusteko bidea izango dute.

Ikuskizunak egin ostean, telebista pizteko momentua iritsiko da. Goiena Telebista apirilaren 30ean hasiko da saioak emititzen; martitzen eta eguenetan emango dute Kantari.

Kantari hastear da, beraz, laster entzungo dugu Amaia Txintxurretaren ahotik horren ezaguna bilakatu den esaldia: "Lau, hiru, bi, bat... aurreraaaa!".









Argazkietan ikusi daitekeen moduan umeak ederki ibili dira entsegu saioetan. Grabaketa egunerako guztia prest daukate dagoeneko. GOIENKARIA

## Grabaketak

**Apirilak 25, Oñati**
18:00etan Gaztelekuan.

**Apirilak 26, Oñati**
17:00etan Gaztelekuan.

**Maiatzak 9, Aretxabaleta**
17:00etan Arkupen.

**Maiatzak 10, Aretxabaleta**
17:00etan Arkupen.

**Ekainak 6, Arrasate**
17:00etan Amaia Antzokian.

**Ekainak 7, Arrasate**
17:00etan Amaia Antzokian.

**Ekainak 13, Bergara**
16:00etan Zabalotegi aretoan.

**Ekainak 14, Bergara**
16:30ean Zabalotegi aretoan.

KANTARI



**Usoa Agirre**
Koreografoa

"Oso pozik nago gure gaztetxoek egin duten lanarekin. Entseguetan oso ondo aritu dira. Talde batzuk, gainera, etxeko lanak eginda etorri dira eta dantzak prestatuta ekarri dituzte; oso lan politak egin dituzte. Umeak ilusio handiarekin ikusi ditugu eta hori pozgarria da".



**Amaia Txintxurreta**
Aurkezlea

"Pasa den edizioan izan genuen arrakasta ikusita desiratzen nago berriro ere taula gainera igotzeko. Kantari saioa oso berezia da niretzat, umeak horren pozik ikusteak niri ere indar handia ematen dit. Aurten ere oso ondo pasatzeko asmoarekin gatoz".



**Leire Egaña**
Parte-hartzailea

"Kantarin parte hartzen dudan lehenengo urtea da eta oso pozik nago. Tapia eta Leturiaren *Konpostelako erromesa* kantua abestuko dugu; oso pozik gaude tokatu zaigun abestiarekin. Grabaketa eguna iristeko desiratzen gaude taldeko denok".



**Eneko Kortabarria**
Parte-hartzailea

"Aurtengoa Kantarin parte hartzen dudan bigarren aldia da. Etzakiten *Zergaitik ez* kantua abestuko dugu. Lau gara taldean. Lotsa apur bat ematen digu taula gainera igotzeak, baina gustura gabiltza. Josu Monterorekin barre asko egin dugu entseguetan".

**MUSIKA** > MATERIAL RECHAZADO ETA DISTORSION

# Ironia, punkaren osagarria



Josu Distorsionek (eskuman) jarri zuen indarra, umorea eta entretenimendua. JOSETXO ARANTZABAL

**NON:** Arrasateko 3.60 aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, apirilak 17.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ia hiru ordu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Punka gauza oso serioa izan da batez ere bere sorreran, gauzak beltz eta muturrean ikusi eta agertzeko modu bat, gordina eta bene-benetakoa. Gerora, denborarekin, gauzek hasierako esanahi eta indarra galdu eta arindu egiten dira. Horixe bera gertatu da neurri handi baten punkarekin.

Bestalde, punkaren baitan ironiak eta sarkasmoak ere leku nabarmena izan du. Horien artean, adibide esanguratsuak dira La Pollako Evaristo eta baita Distorsion taldeko Josu abeslaria, besteak beste.

**PUNKA BIZIBERRITU**

Arrasateko Material Rechazado taldeak hasi zuen gaua 3.60 aretoan. Sarrailagileen herriko punk talde bakarrenetakoa da gaur egun, eta horretan sutsu saiatu ziren: eurendako erreferente diren Eskorbuto eta RIP taldeen bertsioak (zaharrenetakoak) eta taldearen kantu propioak uztartu zituzten. Gehienak gazteleraz diren arren, euskarazkoren bat ere tartekatu zuten; eta piezatan Oi!-aren aztarna batzuk ere antzeman zitezkeen.

Aitor abeslaria oso geldiezina da eta agertoki gainean taldekideak zirikatzen zein jende artean ikusleekin bat egiten, bietan, ibili zen, atsedenik hartu barik.

Nahita edo ez, baina soinua zikin samarra izan zuten. Bitxikeri moduan, Dictators taldearen kantu batekin agurtu ziren.

**UMOREA BARRA-BARRA**

Ia atseden barik, Barakaldoko Distorsion hirukotea jotzen hasi zen. Iraganeko bateria jotzailea Idi Bihotz taldekoak ordezkatu berri du, eta horrek ondo bete zuen zeregina. Beste biak, Josu abeslari eta gitarra jotzailea eta baxu jotzailea, hasierakoak dira.

Distorsion taldeak 25 urte bete ditu sortu zenetik, eta arrazoi horregatik aurten kontzertuak egiten hasi dira berriro. Uste baino harrera hobea izan dute, eta deika eta deika dabiltza Estatu osotik. Hala izan zen Arrasaten baita ere: emanaldiko bigarren kantuarekin, *Lacasitos* abesti izarrarekin, hainbat garagardo *katxi* jausi ziren taldekideen ingurura, eta ikusleak dantza baten eta kantuan hasi ziren.

Horri jarraitu zioten *Suben y bajan* polizien gainekoa, *Ke les den* eta *Generales* militarrei zuzendutakoak, Ramonesen *Niño Pijo*, *Yo no quería* bailar esplizitoa, *Ke buen dios* dionisoa eta beste batzuk. Guztiak politikoki desegokiak edo zirikatzaileak: drogen apologia eginez, agintari guztien kontrakoak... eta batez ere, umore oso sarkastikokoak. Musikari dagokionez, punk-rocka, konplikazio barikoa; eta Josu abeslaria, entretenitzaile hutsa.

**ANTZERKIA** > 'AULKI HUTSA'

# Ametsetan, erbestetik itzuli nahi eta ezin

**IDAZLEA:** Joseba Sarrionandia.
**AKTOREA:** Manex Fuchs.
**TALDEA:** Petit Theatre de Pain.
**NON:** Bergarako Zabalotegi aretoan.

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Formatu txikiko antzezlana da *Aulki hutsa*. Horrelakoetan konplizitate berezia sortu ohi da ikusleen eta aktoreen artean. Horrelaxe gertatu zen egubakoitzean ere Bergarako Zabalotegi aretoan. Kasu honetan aktorea bakarra zen: Manex Funchs. Baina, aretora hurbildu zen ikusle talde txikiarekin (30 lagun inguru) hartu-eman polita lortu zuen Funchsek.

Joseba Sarrionandiaren olerkiak bata bestearekin lotzen ditu aktoreak bere istorioa kontatzeko. Erbestean da, ametsetan; izan ere erbestetik samintasunez oroitzen duen herrira itzuli nahi du, baina ezin. Funchesek momentu benetan biziak eskaini zituen taula gainean, indartsuak oso. Eszenografia xumea: bozgorailu handi bat eta egunkari sorta bat. Baina, Battit Elissalderen akordeoi doinuek are biziago egiten dute protagonistaren errealismoa eta indarra. Gaiak ere errealak dira, benetakoak: tortura, itxitako egunkariak edo askatasunaren eta demokraziaren definizioa.

Hausnarketarako pasarteak dira gehienak, gogorrak eta tristeak. Baina, barre egiteko aukerarik ere eskaini zuten. Protagonistak aho zabalik utzi zituen ikusleak Bergarako pertsonaia eta herritar ezagun eta mitikoak aipatu zituenean.

Ordu eta erdiko ikuskizuna izan zen eta antzezlana ikusleekin lortutako konplizitate ukituarekin amaitu zen. Antzezlana bukatutakoan ikusleak beraiekin tragotxo bat hartzera gonbidatu zituen Funchesek.



Manex Fuchs aktorea eta Battit Elissalde musikaria Zabalotegi aretoan, antzezlana amaitu ostean. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > DATORREN ZAPATUAN, JAM ARETOAN

# Estatuko rock independenteko talde esanguratsuenetako bat: Lagartija Nick

Granadako taldeak rockaren bazterrak astintzen dihardu 1990etik: hamar disko eta kolore askotako proiektu ausartak, euren biografian

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Datorren zapatuan, hilaren 25ean, Espainiako Estatuko rock independenteko talde esanguratsuenetako batek kontzertua egingo du Bergarako Jam aretoan: Lagartija Nick.

Taldea Granadan sortu zuen 1990ean 091 taldeko kide ohi Antonio Ariasek eta ordutik hamar disko kaleratu ditu. Diskoetxe txikiekin eta multinazionalekin lan egin izan dute, ehunka kontzertu egin dituzte eta kamaleoien moduan mozorro eta estilo asko landu izan dituzte. Euren biografia zabalean nabarmendu beharra dago Los Angeles Granadako aspaldiko musika taldearen omenezko disko bat egin zutela eta flamenkoaren izen handienetako bat den Enrique Morenterekin batera *Omega* izeneko disko esperimentala –hasieran bazter asko harrotu zituena eta izugarrizko oihartzuna izan zuena– kaleratu zutela.



Artxiboko argazkian, Lagartija Nick taldeko kideak Enrique Morente flamenko kantari handiarekin. GOIENKARIA

**DISKO BERRIA BESOPEAN**

Bestela, rockaren baitan poesia uztartzen jakin duen taldea da Lagartija Nick; eta izaera oso berezia daukana. Azken aldian Everlasting diskoetxe garrantzitsuarekin lanean dabiltza, eta egunotan *Las marcas de mi larga duracion* diskoa aurkezten dabiltza. Disko horretan rocka, popa, poesia, tarteka iluntasuna eta taldearen ukitu pertsonala batu dituzte.

Granadako taldearekin batera, Iruñeako El Columpio Asesino berritzailea izango da agertoki gainean. Iruindarrek rocka eta elektronika oso modu dotorean batzen dituzte eta *La gallina* izeneko diskoa kaleratu berri dute. Horiez gain, Madrilgo Nudozurdo sentsazio berriak ere esku hartuko du.

**MAIATZEAN, JOE HENRY**

Herriz eta aretoz aldatuta, gogoratu beharra dago, data urrun dagoen arren, maiatzaren 30ean Joe Henry musikaria izango dela Amaia Udal Antzokian. Henryk jazza, bluesa, folka eta beste uztartzen ditu; horretarako, AEBetako tradiziotik tiratu egiten du eta bere estiloa batzen dio horri. 2008ko zuzeneko onena, *Rock De Lux*-en esanetan.



GURE TALDEAK

## Lord Witch



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Iker, Javi, Carlos, *Uge* eta Jorge. JOSETXO ARANTZABAL

# "Heavya gustuko dutenek beti maiteko dute, ez da moda bat"

Lord Witch taldeak lehen diskoa Bergarako DB Uhinak estudioan grabatu du Xarti eta Aimar teknikariekin; auto-ekoiztutako lana da

Riff potenteak, ahots melodikoak eta bonbo bikoitzeko erritmo indartsuak erabiltzen dituzte euren kantuak idazterako orduan

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Carlosek, *Tango*-k, *Uge*-k, *Aka*-k eta Ikerrek osatzen dute Bergarako Lord Witch taldea. Demoa grabatu eta *Txaparrada Musikala* bilduman parte hartu ondoren, taldearen lehen diskoa kaleratu dute: *Dragon Fligth*. Eurekin egin dugu berba.**

**Diskoa zuek ekoiztu duzue. Heavy taldeak hasi zarete autoprodukzioa egiten? Ez duzue diskoetxerik topatu?**

Gure lana auto-ekoizpena da. Gaur egun diskoetxe batekin diskoa ateratzea oso zaila da. Gainera, diskoetxeak eskatutako akordioak oso garestiak dira. Saiatu gara diskoetxea topatzen, baina ez dugu lortu. Dena den, gure asmoa CD bat kaleratzea zen, modu batera edo bestera.

*Dragon fligth* diskoa Bergarako DB Uhinak estudioetan grabatu dugu Xarti eta Aimar teknikoen laguntzarekin; eta egia esan, oso gustura gaude emaitzarekin. Guztira, zortzi kantu grabatu ditugu: bi ingelesez eta gainerako guztiak espainolez.

**Talde heavya zarete. Geroz eta talde heavy gehiago zaudete?**

Jende askok heavya hilda dagoela dio, baina heavya betirako da. Azkenaldian heavy metala lantzen duten talde dezente sortu dira. Heavy metala ez da moda bat: heavya benetan maite duenak betiko maiteko du.

Gure estiloa heavy metala da; hain justu ere, heavy metalaren eta power metalaren nahasketa egiten dugu. Riff potenteak, ahots melodikoa eta bonbo bikoitzeko erritmo indartsuak erabiltzen ditugu gure musika egiteko.

**Nork idatzi ditu kantuen hitzak?**

Letrak denon artean egiten ditugu. Bizitzan gertatzen diren istorio edo gauzetan oinarritzen gara. Batzuetan hitzei fantasia ukitua ematen diegu, eta askotan bizitzako benetako metaforak dira. Bestalde, heavy metala egiten dugunon artean oso arrunta da maitasunaren gainean idaztea.

**Non eros daiteke diskoa?**

Bergarako tabernatan eta gure kontzertuetan eros daiteke.

**Kontzerturik emango duzue?**

Bai, orain gure diskoa aurkezteko momentua iritsi da eta kontzertuak emateko lekuak lotzen ari gara. Ahal den leku gehienetan joko dugu gure lana aurkezteko. Zale guztiak gonbidatu nahi ditugu gure emanaldietara.

**2004an sortu zenuten taldea. Nolako bilakaera izan du?**

Taldea sortu eta berehala hasi ginen kontzertuak egiten. Emanaldi dezente egin genituen bi urtetan. Ondoren, taldeko teklatu-jotzaileak taldea utzi zuen eta bi urte egon ginen teklatu-jotzaile barik. Denbora hartan kontzertuak egin eta kantuak konposatu genituen. 2008an baxu-jotzaile berria sartu genuen taldean eta hilabete gutxira estudioan sartu ginen lehen diskoa grabatzera. Taldea ondo finkatuta zegoen eta indarberrituta hasi ginen diskoarekin. Ondoren, teklatu-jotzaile berria hasi zen gurekin.

**Bergarako *Txaparrada musikala* CDan parte hartu zenuten.**

Esperientzia ona izan zen. Gure kasuan *Txaparrada*-ko bi kontzertuetan parte hartu genuen, bai grabaketan eta bai diskoaren aurkezpenean. Halako ekintzek zaleak mugitzen ditu. Gainera, Txapa Irratiak egindako CDarekin talde askok ezagutzera eman dute euren burua. Askorendako bultzada itzela izan da diskoa grabatzea.

**Danbakan parte hartu zenuten. Zer moduz?**

Oso gustura egin genuen Elgetako kontzertua. Gainera, emanaldia GOITBn ematea oso garrantzitsua izan zen guretako. Esperientzia aberasgarria izan zen.




### Heavyaren malenkonia eta indarra

Bergararren estreinako diskoa entzutean, badirudi Euskal Herri kanpoko taldea dela. Iraganean Espainian ezaguna egin zen heavy-rocka egiten dutelako da hori, eta gaztelaraz abesten dutelako, jakina. Baina, baita ere, gaur egun lortu duten maila txukuna delako.

Lan honetan heavyaren malenkonia eta kutsu epikoa dira nagusi, gazteleraz batez ere eta baita ingelesez abestuta. Punteo disdiratsuek eta bonbo bikoitzeko erritmo biziez gain, melodia ere barra-barra landu dute, eta baita baladak ere.

**Iker Barandiaran**

hauetara: 647-25 04 61

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627-21 08 93

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679-06 12 99

**Debagoiena**. Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685-70 76 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Maria. 667-20 56 29

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin edo garbitzen ariko nintzateke. Socorro Mora. 627-14 63 79 edo 943-25 07 53

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. 943-71 21 15 edo 679-58 41 92

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672-25 92 20

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634-84 11 72

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628-93 79 39

**Debagoiena.** Etxerik etxe ile apaintzaile lanak egingo nituzke. Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. 650-599 391

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizitzeko prest. Ana Luisa de los Santos. 943-25 07 53

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. 628-40 58 27

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. 695-78 91 04 edo 695-78 41 14

**Debagoiena.** Edozein motako lanak egingo nituzke. Autoa daukat. 662-26 07 09

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientzia handia. 610-63 17 71

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680-67 74 96

**Debagoiena.** Emakumea gertu, haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko gauez, Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna 618-00 08 28

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645-72 92 87

**Debagoiena.** Emakume arduratsua edozein lan egiteko gertu: garbiketak, nagusiak edo umeak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. 638-23 37 39

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. 639-00 35 57

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. Deitu telefono hauetara: 678-24 94 24

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ainhoa. 671-35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667-20 56 29

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko, Bergaran edo Arrasaten. 600-82 84 60

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izateko gertu nago. 663-65 78 43

